

## EKONOMIA GRADUA

2019/2020

# ZOR GORROTAGARRIA XXI. MENDEAN

*Pasa den mendeko ideietatik gaur egungo ekintzetara*

Egilea: Josu Irure Aiaastui

Zuzendaria: Eduardo Bidaurratzaga Aurre

## AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	4
1. OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTU ETA KONTSIDERAZIO TEORIKO .....	6
1.1. Kanpo-zorra .....	6
1.2. Zor gorrotagarria edo ez-legitimoa .....	11
2. ZOR-GORROTAGARRIAREN DOKTRINAREN IKUSPEGI JURIDIKO-AKADEMIKOA .....	18
2.1. Doktrinaren historia juridiko laburra .....	20
2.2. Doktrina juridikoa nazioarteko zuzenbidearen iturrien arabera.....	20
2.3. Doktrina juridikoaren arazo edo ahultasun nagusiak .....	24
2.4. Doktrina juridikoa: Bai ala ez? .....	27
3. ZOR-GORROTAGARRIA GIZARTEAN .....	27
3.1. Baldintzatua eta baldintzagabekoa.....	29
3.2. Mugimendu sozialak eta erreferentziazko pertsonaiak.....	31
4. ZOR-GORROTAGARRIA HERRIALDEETAN (XXI. MENDeko kasu aipagarriak) .....	35
4.1. IRAKeko zor-gorrotagarria eta hartzekoduden barkamena.....	36
4.2. Ekuadoreko zor-gorrotagarria eta ordainketaren etetea .....	41
4.3. ARGENTINAKo zor-gorrotagarria eta nazio zein nazioarteko isiltasuna .....	46
5. ONDORIOAK.....	51
6. BIBLIOGRAFIA .....	52

## **DIAGRAMAK**

1. Diagrama: Munduko Bankuaren garapen-ikuspegia 1968-1980 bitartean.....8
2. Diagrama: Zor-gorrotagarria etiketarako hautagai izan daitezkeen zor batzuk.....19

## **GRAFIKOAK:**

1. Grafikoa: 1992-1997 aldian oinarritzko gizarte zerbitzuetara eta zorraren zerbitzuetara bideratutako aurrekontuaren zati bat.....11
2. Grafikoa: Irakeko kanpo-zorra Saddamen aroan.....38
3. Grafikoa: Ekuadorreko kanpo-zorra dolarretan.....43
4. Grafikoa: Argentinako kanpo-zorraren bilakaera eta BPGrekin duen harremana .....49

## **TAULAK:**

1. Taula: Zor-gorrotagarriaren adibide batzuk.....17
2. Taula: Zorraren baliogabetze baldintzatua edo baldintzagabekoa.....30
3. Taula: Irakeko Parisko Klubaren zorra, 2003an.....39
4. Taula: Argentinaren kanpo zor osoaren bilakaera gobernuaren arabera eta aldakuntzaren ehuneko aurrekoarekin alderatuta.....46

## Laburpena

1927an Alexander Sakek zor-gorrotagarriaren kontzeptua definitu zuen. Gaur egun, zenbait legelari eta gizarte-mugimenduek, doktrinaren ideia beregain hartu eta mahai gainera ekarri dute. Doktrina finkatzen duen arautegia baina, gatazka eremu zabala da kanpo-zorraren arloko jurista eta ekonomista askorentzat. Horrez gain, gizartearen zati handi batek ere ez du doktrinaren ideia antzinako kontu bezala geratzerik nahi eta doktrinaren gaurkotasun, adostasun eta aplikazioaren aldeko jarrerak erakusten dituzte. Pasaden hamarkadan eman ziren nolabaiteko emaitza bertsuak izan zituzten pare bat kasu. Bata Iraken eta bestea Ekuadorren. Testuingurua, prozesuak eta aplikazioak baina, zeharo ezberdinak izan ziren bi kasu horietan. Hori gutxi balitz, oraindik badago doktrina honen aplikazio prozesu bat eman daiteken herrialderik; Argentina adibidez.

Lan honek, zor-gorrotagarriaren doktrina aztertzen du, batez ere, arautegiari eta Hegoaldeko herrialdetako aplikaziora bideratuta, analisiaren bitartez ondorioetara iristeko. Lanaren ondorioek, kontzeptu juridiko zein sozialak batuz eta hiru benetako kasuez baliatuz, XXI. mendean kanpo-zor bat zor-gorrotagarria dela erakustea posible, eta agian beharrezkoa, dela erakutsiko dute.

## 0. SARRERA

Covid-19aren garaian aurkitzen gara. Bizitzak eta bizi-baldintzak suntsitzen ari den, munduko sistema kapitalistaren dimentsio anitzeko krisi baten aurrean. Urteetan zehar, bai Iparraldean eta baita Hegoaldean ere, pribatizaziorako joerek eta subentzio publikoen murrizketek osasun-sistema publikoak ahuldu dituzte. Orain, herrialdeek ez dituzte nahikoa tresna beraien herritarrak babesteko. Argi dago beraz, eskura dauden baliabide urriak osasun-sistemaren premia larrietarako erabili beharko direla.

Ekonomista askok, larrialdi sanitarioak eta ekonomikoak gobernu gehienak premialdi paketeak finantzatzeko, zorpetzea handitzera bultzatuko dituela uste dute. Hala ere, testuinguru honek, nazioarteko agendan jarri du, batez ere Hegoaldeko herrialdeetan, kanpo-zorraren ordainketak eteteko premia. Izan ere, ordainketa hori bertan behera uzteak, krisiari aurre egiteko baliabide propio gehiago izatea ekarriko luke. Kanpo-zorra ez ordaintzea baina, ez da nazioartean begi onez ikusten den jarreretariko bat. Herrialde gehienak, ordainketa eteteak ekarri ditzaken ondorio negatibo eta kalte larriago horien beldur izango dira seguru aski. Kanpo-zorra ordaintzearen betebeharrak gobernu baten jarduteko gaitasuna zeharo baldintzatzen duela argi dago beraz. Askotan ordaintzen ari diren zorraren izaera ere ezagutzen ez dutelarik.

Posible al da, gaur egun herrialdeek aurrekaririk gabeko larrialdi-egoera bati aurre egin ahal izatea eragozten dion kanpo-zorra eskagarria ez izatea? Ba al dago zor horietan zilegitasunik ezaren zantzurik? Eman ote da horrelako kasurik inoiz? Posible al da gobernu batek ordaintzen aritu den eta oraindik ordaindu behar dituen kanpo-zorrak ez dagozkiola nolabait justifikatzea? Ba al dago zor baten gorrotagarritasuna justifikatzeko modurik?

Lan honen helburu nagusia beraz, zor-gorrotagarria kontzeptuaren edo doktrinaren eta doktrinaren, beraren, XXI. mendeko aplikazioen gaineko azterketa burutzea da. Hau da, teoria eta praktikaren artean dagoen gaur egungo aldea aztertzea. Batez ere, Hegoaldeko, herrialde askok urteetan zehar zorraren inguruan egin dituzten erreklamazio eta kexak ulertzeko, Iparraldeak eta bere nazioarteko finantza-erakundeek zorpetze horretan izan duten eta daukaten papera zein den argitzeko eta doktrinaren inguruan pairatu daitezkeen ezjakintasun edota ilunkeria horiek argitzeko eta, nola ez, gaur egungo egoeran herrialde askori lagun diezaiokeen gai garrantzitsu bat dela frogatzeko asmoarekin. Horrekin batera, zor-gorrotagarriaren atzean dagoen eta maiz kritikatu den intereskeria hori, zer izan daitekeen edota zertan datzan ere argitu nahi izango da.

Lana egin ahal izateko erabili diren iturriak era askotarikoak izan dira. Gehien bat, txosten eta artikulua espezializatu edo akademikoetako informazioan oinarritu bada ere, gaia aztertzen duten prestigio handiko web-orri edo aldizkarietan eskuraturiko informazioa ere oso baliagarria izan da lana burutzerako orduan. Horretaz aparte, gai konkretu batzuetarako, beharrezkoa izan da herrialde bakoitzeko gobernu edota erakunde propioen web orriak edota buletinak eta nazioarteko erakundeen zenbait txosten eta ebazpenak arakatzea ere.

Azterketa hori gauzatzen hasita, lehendabizi lanean zehar ezinbestekoak diren oinarrizko kontzeptu eta kontsiderazio teorikoak plazaratuko dira. Atal honetan, kanpo-zorraren eta zor-gorrotagarriaren inguruko oinarrizko jakinduria aurkeztuko da beraz. Ondoren, gaiaren diagnostikoa egiteko, kontzeptuaren arautegia izango da aztergai, doktrina juridiko baten existentziaren egungo gatazka isladatzeko asmoarekin. Horretarako, doktrinaren historia juridiko laburra, nazioarteko zuzenbideak kontzeptuaren inguruan dioena eta arautegiaren nolabaiteko ahuleziak aztergai izango dira atal honetan. Horretaz aparte, eta egoera ahalik eta sakonen ezagutzeko asmoarekin, gizarteak doktrinaren inguruan izan duen, daukan eta izan behar duen jarreraren azterketa txiki bat ere burutuko da. Horrela, zor-gorrotagarriarekiko ikuspegi soziala eta haren arloan jarduten duten mugimendu sozialak eta erreferentziatzko pertsonak aurkeztuko dira besteak beste.

Behin gaiaren diagnostikoa finkatuta, testuinguru horretatik eratorri diren ondorioak edo arestiko hiru egiazko kasu aztertuko dira. Ikusiko den bezala, kasu hauek doktrinaren konplexutasuna eta ekintza-arlo zabal zein ezberdina erakutsiko dute. Atal honetan beraz, doktrinak herrialdeetan izandako esperientziak (lehendabiziko bi herrialdeetan) eta izan ditzakeen aplikazio mota ezberdinak (hirugarren herrialdean) izango dira aztergai.

Lanarekin amaitzeko, azken atalean, gaiaren azterketatik ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko dira, hasieran formulaturiko helburu eta galderekin erlazionatzeko asmoarekin.

# 1. OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTU ETA KONTSIDERAZIO TEORIKO

## 1.1. Kanpo-zorra

### 1.1.1. Zer da kanpo-zorra?

Kanpo-zorra (edo kanpo mailegua) herrialde bateko biztanleek kanpoko hartzekodunei zor dieten zor kopuru osoa dela baieztatu daiteke. Zor publikoaz zein pribatuaz osatua izaten da. Publikoa, Estatuak eta bere instituzioek harturikoa eta pribatua berriz, enpresari eta familiek harturikoa. Hori horrela, zordunak, herrialdeko administrazio publikoak (Gobernuak, aldundiak, udalak), enpresa pribatu eta publikoak edo herritarrak ere izan daitezke. Zor mota honen hartzekodunak, finantzaketa iturri diren atzerriko banku komertzial pribatuak, atzerriko gobernuak edota nazioarteko finantza-erakundeak, hala nola, Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua, izan ohi dira.

Kontu Nazionalen Sistema 2008-tik eta Ordainketen Balantzari eta Nazioarteko Inbertsio-Jarrerari Buruzko Eskuliburuaren seigarren ediziotik (NDF) jasotako kontzeptuetatik eratorritako definizioaren arabera: Egoiliar (pertsone fisiko, juridiko edo administrazio) batek pasibo korrante bat badu ez-egoiliar baten aurrean eta etorkizunean pasibo horren printzipala edota interesak ordaindu behar baditu, pasibo hori kreditu-eskubidea da egoiliarraren ekonomiaren baliabideen aurrean, eta beraz, ekonomia horren kanpo-zorra, alegia (Inter-Agency Task Force on Finance Statistics, 2014).

### 1.1.2. Zein izan daiteke kanpo-zorraren jatorri nagusia?

Kanpo-zorraren jatorria edo hastapen nagusia, deskolonizazioaren garaian, Bigarren Mundu Gerraren osteko garaian, kokatu daiteke. Kolonializatutako herrialdeak beraien herrialde edo potentzia kolonializatzaileetatik independizatzen ari zirenean, hain zuzen ere. Herrialde berri eta “aske” ziren horiek ekonomia propioak martxan jarri behar zituzten eta horretarako kapitala ezinbestekoa zen. Kapital hori, herrialde aberatsenei eskatu zieten. Kasu askotan beraien antzinako kolonizatzaileei, horrela, nolabaiteko menpekotasun hura, guztiz hautsi ezinik. Hori horrela XX. mendearen erdialdean, Latinoamerikako herrialde guztiek eta Afrikako zein Asiako herrialde gehienek independentzia eskuraturik zeukaten, (Garcia, M, PROADE, 2001).

1956an Parisko Kluba<sup>1</sup> sortzen da. Zenbait herrialde hartzekodunek (Ameriketako Estatu Batuek (AEB), Kanada, Japonia, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania ...) eta herrialde zordun ugariak (Brasil, Mexiko, Argentina ...) osatutako erakunde informala. Klub honen helburua herrialde zordun eta hartzekodunen arteko negoziazioa zen, harturiko zorrak kobrantza ziurtatua izango zuela bermatzeko, jada bazirelako zenbait herrialde zor hori itzultzeko arazoak zituztenak (Pérez de Eulate, 2012). Parisko Klubak martxan jarraitzen du oraindik eta pentsa daiteke hartzekodunen adostasunez eta zordunen parte-hartze baxuarekin hartzen dituela akordioak. Gainera, akordio horiek banan-banan, herrialde bakoitzaren berezko inguruabarrak aztertuz hartzen direnez, baieztatu daiteke herrialde guztiek ez dutela tratatu bera jasotzen.

1973. urtea funtsezko data da kanpo zorpetzearen hasiera markatzeko. Estatu Batuetako defizit fiskalaren eta dolarraren debaluazioaren ondorioz, Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeko (LPEE) herrialdeek petrolioaren prezioa hiru eta lau bider garestitzen dute. Horren arrazoa zera izan zen, petrolioa dolarretan merkaturatu zenean, eta moneta horren beherakadaren ondorioz, petrolioa ekoizten eta esportatzen zuten herrialdeek euren diru-sarrerak arriskuan jarri zituztela, eta, beraz, eurentzat ez zela beren prezioa igotzea baino egokiagoa (Jaguaribe, H, 1977).

Momentu horretatik aurrera, mundu osoa krisian sartzen da, petrolioaren garestitzeagatik. LPEE-ko herrialdeek, berriz, dibisak nabarmen handitzen ari zirela ikusten zuten. Soberakin monetarioa mendebaldeko bankuei eman zitzaienten, eta haiek ez zuten zalantzarik izan kapital hori maileguan emateko, oso interes-tasa txikiko kreditu gisa. Diruaren prezioaren merkatze hori herrialde askok aprobetxatu zuten, bereziki Hegoaldeko herrialdeek, zeintzuk helburu ezberdinekin zorpetu ziren (Schvarzer, J, 1988).

### **1.1.3. Zertarako balio du kanpo-zorrak?**

Herrialde batek zor bat bereganatzeko argudio nagusienetarikoa ondorengo hau izan daiteke: Teorikoki, baliabide propioak mantentze edo babesteko eta besteren baliabideak jasotzeko, zein ondasun eta zerbitzu berriak ustiatu, prozesatu edota ekoizteko aukera lortzen dela, horrek, herrialdearentzako nolabaiteko giza garapen eta garapen ekonomikoa ekarri ahal izango dituelarik.

---

<sup>1</sup> Hartzekodun ofizialen eta herrialde zordunen arteko eztabaidarako eta negoziatzeko gunea da. Bere eginkizuna, ordaintzeko zailtasunak dituzten herrialde zordunetako kanpo-zorrak berriz negoziatzea da, modu koordinatu eta bateratuan.



Hasiera batean, eta batez ere nazioarteko finantza erakunde nagusien esanen arabera, kanpo-zorra hegoaldeko herrialdeei beraien ekonomiak industrializatzen lagunduko litzaiekeen diru-iturri egokienetarikoa litzateke. Industrializazioaren bitartez, esportazioetara zuzenduriko ekonomia sendotu edota sortuko litzatekeelako, horrela zorra itzultzen lagunduko luketen diru sarrera handiagoak eskuratuko liratekeelarik.

### **1. Diagrama: Munduko Bankuaren garapen-ikuspegia 1968-1980 bitartean**



Iturria: Millet & Toussaint, 2005

Zehazteko, Paula Nicole Roldánek 2017ko otsailaren 16ko “Deuda Externa” artikuluan idazten duen bezala, herrialde baten atzerriko zorpetzea azaltzen edo argudiatzen dituzten hiru arrazoi nagusi aipa daitezke:

1. **Azpiegitura edo makineriako inbertsioak:** Azpiegituretan edo ekoizpen garapenerako makinerian inbertsioak egiteko diru funtsa behar izatea. Adibidez herrialdeak, errepideak, zubiak edota tunelak eraikitzeke zorpetu daitezke, enpresen garraio-kostuak murriztuz eta, horrela, hazkundera sustatuz.
2. **Hondamendi naturalak:** Herrialdeko lurraldearen zati handi bat berreraikitzen behartu ditzaketen urakan, lurrikara edo baso suteak suertatzea.
3. **Administrazio okerra:** Errentagarriak ez diren jardueretan baliabideak xahutu dituzten erakunde publiko edota pribatuaren kudeaketa txarra konpondu behar izatea.

#### **1.1.4. Zeintzuk (izan) dira kanpo-zorraren bultzatzaile nagusiak?**

1.1.2. azpiatalean argi geratu da, finantziarioa bilatzen ari ziren hegoaldeko herrialdeen mailegatzailerikoko bat mendebaldeko bankuak izan zirela. Hala ere, geroztik aurrera, kanpo-zorraren hartzekodun izan diren eta diren beste hainbat aktore aurki daitezke.

1973-1975ean izandako petrolio-shockaren ondoren, Bigarren Mundu Gerra geroztik egondako lehen atzeraldi orokorra suertatu zen. Iparraldean ekoiztako salgai eta produktuen merkatariek erosleak aurkitzeko zailtasunak izan zituzten, atzeraldi horren eta atzeraldi horrek eratorritako langabezia masiboaren ondorioz. Egoera horrela zelarik, herrialde aberats horiek erosketa boterea hegoaldeko herrialdeetara trasladatzea erabaki zuten, iparraldeko saltokietan eroستا bultzatzeko asmoarekin. Mailegu-harreman horietatik datoz, Estatu-Estatu maileguak. Horrela, iparraldeko zenbait herrialde ere, hegoaldeko herrialde askoren hartzekodun izatera pasa ziren. Aipatu behar da, sarritan, mailegu mota horiek baldintzapeko laguntzapean buru zirela; hots, esportazio-kredituen araupean (Millet & Toussaint, 2005). Adibidez: Iparraldeko herrialde batek 20 milioi dolar mailegatzen dizkio hegoaldeko beste herrialde bati, honek trukean, mailegua interes baxuekin itzuli behar izateaz gain, iparraldeko herrialdeari 20 milioi dolarren truke salgaiak erosteko baldintzarekin.

Kanpo zorpetzearen beste eragileztat, 1944ean Bretton Woodseko akordioetatik sorturiko Munduko Bankua eta NDF kokatu daitezke. Munduko Bankuak, Hirugarren Munduko herrialdeei ematen dizkien maileguak nabarmen handitu zituen 1968. urtetik aurrera, 1969-1973 urteen bitartean emandako mailegu kopurua, 1945-1968 bitartean emandakoa baino handiagoa izan zelarik (Millet & Toussaint, 2005). Hegoaldeko herrialdeak masiboki zorpetzera bultzatu zituzten, esportaziotarako aparatuen modernizazioa finantzatzeko eta munduko merkatura estuago konektatzeko helburuarekin (Ikusi: 1. Diagrama). Bretton Woodsen sistemak ere kreditu funtzio garrantzitsua eman zion NDF-ri. 60ko eta 70eko hamarkadetan, NDF-k kreditu-lerro gehigarriak gaitu zituen, eta aukera eman zien herrialdeei beren kuotaren ehuneko 600era arteko kredituak maileguz hartzeko. Horrela, herrialde defizitarioen zorpetze masiborako bidea ireki zen (Alvarez, 2007).

#### **1.1.5. Zeintzuk izan daitezke kanpo-zorrak ekar ditzakeen ondorio latzak?**

Kanpo-zorparen ondorioak, zorpetzea justifikatzen duten arrazoi berberen araberaokak direla esan daiteke. Alabaina, arrazoi edo justifikazio horiek ondorio positibo gisa onartu daitezke nolabait. Dena dela, aipatu behar da kanpo zorpetzeak arazo larriak suertarazi ditzakeela herrialdeengan. Bai zordunetan, baina baita hartzekodunetan ere.

Zorpetzea inbertsiorako, eta beraz, industrializazio edo modernizatorako erabilia izan bada, teorian, eragin positiboa izango du, izan ere, etorkizunean garapen handiagoa lortzea ahalbidetuko du, horretarako beharrezkoak izan diren baliabideak kanpo zorpetzeaz bitartez eskuratuak izan direlarik. Aitzitik, zorpetzea administrazio oker


batez azaltzen duenean, ondorioak oso lazgarriak izan daitezke. Hartutako zorra, interesei gehituta, ordaindu beharko da, nahiz eta diru-sarrera iturri berrik sortu ez.

Herrialde edota erakunde hartzekodunek nabari ahal dezaketen kanpo-zorraren ondorio okerrenetarikoa, maileguaren kobrantza arazoa izan daiteke. Baliteke bere zorrak ordaintzeko gai ez den herrialdeak, hartzekodunari zorraren kopuru osoa, edo zati handi bat, ezin itzuli ahal izatea. Horrek, mailegatzailerak bere inbertsioa ezin berreskuratzea suposatuko luke. Gainera, egindako maileguak baldintzapekoak balira (Behatu 1.1.4. azpiatala), posible izan daiteke baldintza horietako asko edo denak ere ez beteak suertatzea. Argi dago inbertsioa ez eskuratzeak, etorkizunean egin ahal izango dituen inbertsio aukerak ere murriztuko dizkiola hartzekodunari.

Herrialde zordunetan berriz, ondorengo ondorio negatibo hauek aipa daitezke:

1. **Gain-zorpetzea:** Aurreko aldi edo egoera batetik datorren zor heredatua, epe honetan aurreikusitako epemuga duena eta zeinahi arrazoi direla medio, aurre egin ezin zaiona da gain-zorpetzea (Krugman, 1988; hemen aipatuta: Azcona, J. A, 2002: 49). Horrek herrialde zorduna, hausteko oso zaila izan daitekeen zirkulu biziotsu batean murgiltzea ekar dezake. Esan daiteke, arazo horren ondorio asko prozesua atzeraelikatzen duten kausa bihurtzen direlako gertatzen dela hori (Azcona, J. A, 2002: 49). Beraz, denbora igaro ahala, arazoaren tamaina murrizteko aplikatzen diren neurriak gero eta ez-eraginkorrakoak izango dira.
2. **Konfiantza galera:** Ordainketak behar bezala betetzeko estrategia argirik ez badago, gainontzeko herrialdeen konfiantza murriztu egin daiteke, eta, horrela, laguntza diplomatiko eta finantzarioa eskuratzeko aukerak murriztu eta herrialdeak finantza krisia jasateko aukera areagotuz.
3. **Politika ekonomikoan eta gastu publikoan mugak:** Interes gehiago ordaintzeko beharrak, zor handiagoa sortarazten du, horrela beste gastu batzuetarako edo zergak murrizteko erabilgarri dauden baliabideak murriztuz. 1. Grafikoan adierazten da, zer nolako aldea nabari zen 90eko hamarkadan Afrikako zenbait herrialdeetan, gizarte zerbitzuetara eta zorraren ordainketetara bideraturiko partidetan. Era berean, ustekabeko gastuei aurre egiteko malgutasuna murriztu egiten da, hala nola finantza, atzeraldi edo gerra krisien ondorioz sortutakoak. Hau da, gehiago gastatzeko aukera mugatu dezake.

**1. Grafikoa: 1992-1997 aldian oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eta zorraren zerbitzura bideratutako aurrekontuaren zati bat**



4. **Makroekonomia arazoak:** Zorpetze handiagoak murriztu egiten ditu herrialdearentzat, enpresentzat eta herritarrentzat eskuragarri dauden aurrezki-mailak, eta horrek eragin negatiboa izango du etorkizuneko inbertsio-mailan eta, ondorioz, produktibitatearen hazkundean eta, hortaz, hazkunde ekonomikoan (Alvarez, O, 2011).

## **1.2. Zor gorrotagarria edo ez-legitimoa**

Zor gorrotagarria, zor ez-legitimoa edo zor bidegabea, nazioarteko zuzenbidean, teoria juridikoa da, historian zehar momentu askotan praktikan jarria, kanpo-zorraren arloan. Teoria horren arabera, herrialdeko herritarren interesen aurka hartutako, sortutako eta erabilitako gobernu baten kanpo-zorra ez da zertan ordaindu behar, eta, beraz, ezin da zor horren itzulketa eskatu, mailegu-hartzaileek fede txarrez jokatuko luketelako, jakinaren gainean egonik. Merkataritza-kontratu horiek, hortaz, baliogabeak dira. Nolanahi ere, zor horiek pertsonaltzat har litezke, eta nork bere izenean erantzun behar dute (izan monarka, presidentea, edo kasuan kasuko ministroak), eta ez Estatuak oro har eta, beraz, ez herritarrek. (Toussaint, 2016).

Doktrina hori, kanpo-zorra ordaintzeko betebeharrari buruzko eztabaidan, diktadurak, monarkia absolutuak, gobernu ez-ordezkarriak eta demokratikoki aukeratutako

gobernuak egon diren herrialdeetan dago presente, baldin eta kanpo-zor horiek, herritarren ez-ezagutzaz baliatuz, haien baimenik gabe eta aberastasun pertsonala, aberastasun korporatiboa, errepresio soziala edota errepresio politikoa lortzeko hartu baldin badira, eta, nolanahi ere, herritarren interesen aurka (Kauth, 2002).

### **1.2.1. Zor-Gorrotagarriaren definizioan lanak:**

#### **A. Alexander Sack:**

Kontzeptu honen sortzailatzat, Alexandre Nahum Sack kokatu ohi da. Finantza publikoetan espezializatutako eta iraultza boltxebikearen ondoren Parisen erbesteratutako legelari errusiar bat izan zen bera. 1917tik aurrera nazioarteko zuzenbideko irakasle moduan jardun zuen Europako eta geroago Estatu Batuetako unibertsitateetan. 1927an, "The Effects of State Transformations on their Public Debts and Other Financial Obligations" testuan, teorizatu omen zuen zor gorrotagarriaren doktrina juridikoa eta ondorengo zioen:

*Botere despotiko batek, ez estatuaren behar edo interesengatik, baizik eta bere erregimen despotikoari indar handiagoa emateko edo aurre egiten dion biztanleria erreprimitzeko zor bat baldin badu, zor hori gorrotagarria da Estatu osoko biztanleentzat. Zor hori ez da nazioaren betebeharrak; erregimenaren zor bat da, hartu duen boterearen zor pertsonal bat, eta, beraz, hartu zuen boterearen erortzarekin batera erortzen da. Ezin da ulertu zor gorrotagarri horiek Estatuaren lurraldea zergapetzen dutenik; izan ere, zor horiek ez baitute betetzen Estatuaren zorren legezkotasuna zehazten duten baldintzetako bat, ondorengo hau dioen baldintza: Estatuaren zorra hartzerakoan, diru funtsa horiek herrialdearen beharrak eta interesak asetzeko erabili behar dira.*

*Hartzekodunen ezagutzarekin nazioaren interesen aurkakoak diren helburuetarako hartutako eta erabilitako zor gorrotagarriek ez dute nazioa konprometitzen (nazioak berorietan erori zen gobernutik askatzean, arrakasta izanez gero), zor horietatik etekinak atera zituen kopuruagatik izan ezik. Hartzekodunek herritarrekiko aurkaritzako ekintza bat egin dute eta horiek, beraz, ezin dute espero botere despotiko batetik askatutako nazioak zor gorrotagarriak bere gain hartzea, botere despotiko horren zor pertsonalak baitira.*

*The Effects of State Transformations on their Public Debts and Other Financial Obligations, Paris, 2017.*

Alexander Sacken doktrina juridiko horrek dioenaren arabera, zorra "gorrotagarria" izango da funtsezko hiru baldintza betetzen dituenean:

1. **Herritarren aldeko ez-ezagutza eta onarpen eza:** Herrialdeko biztanleek hartu berri den zorrari buruzko berririk izan ez dutenean edota zorraren onarpenean parte hartu ez dutenean.
2. **Herritarrentzako onurarik eza:** Zorra ez zenean herriaren eta Estatuaren interesen alde hartu, interes horien aurka baizik, edota agintarien eta boteretik gertu zeuden pertsonen interes pertsonalaren alde.
3. **Mailegu-emaileen konplizitatea:** Hartzekodunek bazekitenean (edo jakiteko gaitasuna zutenean) mailegatutako funtsek ez zietela mesederik egingo herritarrei.

Laburbilduz, zorra herritarren interesen aurka kontratatua izan bada eta hartzekodunak horren jakitun baziren edo hala izan behar bazuten, gorrotagarria dela eta baliogabetu egin daitekeela, defendatzen zuen Alexander Sackek.

Irakasle errusiarrarentzat baina, erregimen baten izaera despotikoa edo demokratikoa ez da kontuan hartu beharreko zerbait, zor bat gorrotagarria den edo ez den erabakitzeko. Hori dela eta Sacken arabera, erregimen autoritario batek hartutako zorrak herritarren interesetarako balio badu, itzuli egin behar izango da. Hortaz, erregimen aldaketa batek ez du ahalbidetzen gobernu berriak aurreko gobernuaren zorrak ordaintzeko duen betebeharra zalantzan jartzea, zor horiek gorrotagarriak (bere definizioaren arabera) direla ziurtatzen ez bada.

## **B. Ernst Feilchenfeld:**

Ernst Feilchenfeldek "zor gorrotagarria" eta "inposatutako zorrak" terminoak erabili zituen bere liburuko zenbait ataletan, (Feilchenfeld, 1931; hemen aipatuta: King, 2006), baina ez zuen definizio analitikorik eskaini, ezta Sacken definizioa aipatu ere, beste batzuetan Sack aipatu arren. Feilchenfelden lanetan, zor gorrotagarria kontzeptua AEBetako komisionatuek Kubako maileguen auzian emandako argudioen inguruan eginiko azterketan agertzen da.

Hala ere, Feilchenfelden lanean, "zor gorrotagarrietarako" indizeak, zorraren zilegitasuna ebaluatzeko irizpide gisa, onespenez ezaren eta onurarik ezaren nozioaren tratamendu landuak kokatzen ditu. Feilchenfeldek, atal zehatz horretan, argi utzi zuen zor baten "justizia" (haren legezkotasuna edozein dela ere) ebaluatzeko irizpideak ezartzeko asmoa zuela, eta iradoki zuen, gogoeta horiek lagungarriak izango lirakeela etorkizuneko legeriari forma ematerako orduan (Feilchenfeld, 1931; hemen aipatuta: King, 2006).

Horrela, Feilchenfeldek oro har, zorpetze publikorako zilegi diren helburu publikoen betekizuna, definitu nahi izan zuen. Bere kontsiderazio horretan, Kubako kasua aztertu zuen (“inposatutako zorrak” deitu ziona), eta “onurarik eza” baldintza-kontzeptua izan zitekeenaren azterketa orokorragoa egin zuen. “Onurarik eza” eta “onespenik eza definitzean” arazoak izan zituen. Halere, funtzionarioen aberastasun pribaturako mailegua eskatzea, “onurarik eza” ziurtasunez identifikatzen duen elementuetako bat dela ondorioztatu zuen (Cahn, 1950; hemen aipatuta: King, 2006). Ernst Feilchenfeld, beste egile batzuek eginiko zor-gorrotagarrien tratamenduetan aipatua izan da. Adibidez, Beemelmans (1997) eta Hoeflich (1982).

#### **D. Beste batzuk:**

Aurretik emandako zor-gorrotagarriaren definizio horiek definizio "kontserbadoreegiak" zirela defendatuz, beste legelari eta gizarte-mugimendu batzuk, hala nola CADTMk (Behatu 3.2.), zor-gorrotagarriaren kontzeptua hedatzen edota osatzen saiatu ziren. Bereziki, kontuan hartu beharrekotzat jotzen zen, zorra hartzen duen erregimenaren izaera eta mailegua onartzeko edo emateko estatuetakoa parlamentuei eginiko kontsulten bermea.

#### **-Greziaren Zorraren Egiarako Batzordea:**

Aipagarria da Greziaren Zorraren Egiarako Batzordeak erabilitako zor gorrotagarriaren definizioa. Kontzeptua, nazioarteko itunetan eta nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorretan ere oinarritzen dela defendatzen badute ere, aldi berean eta hertsia-hertsian, Sack doktrinan oinarritzen denaren zalantzarik ez dago:

*Printzipio demokratikoak (adostasuna, parte-hartzea, gardentasuna eta erantzukizuna) urratzen ari zirela ezagutzen zuten edo jakin behar zuten mailegu-emaile batzuekin hartutako eta biztanleriaren interes legitimoen aurka erabilia izango zen zorra, da zor-gorrotagarria. Baita gehiegizkoa dena ere, eta haren ordainketak biztanleriaren oinarritzko eskubideak, hots, zibilak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak, ukatzea dakarrena.*

*Greziaren Zorraren Egiarako Batzordea, 2015*

Beraz, batzorde horren arabera zor gorrotagarri batek ondorengoari erantzuten dio: Printzipio demokratikoak urratuz hartutako zorra, eta estatu zorduneko biztanleen interes handien aurka erabili dena, hartzekodunak aurrekoaren berri zuen (edo izan zezakeen) bitartean. Edo herritarren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak ukatzen dituen zorra.

### **-Zor bidegabeak indargabetzeko Komitea (CADTM 3.2.)**

CADTM-k 2008an plazaratutako ikuspuntuan, zor bat gorrotagarria den edo ez zehazteko, mailegua eskuratzean Estatuaren buru zen gobernuaren edota sistema politikoaren izaera, alderdi oso garrantzitsua dela aldarrikatzen da. Hori horrela, komitearentzako beharrezkoa da kontutan hartzea estatu zorduneko gobernuaren izaera demokratikoa. Halere, demokratikoki hautatua izan arren, nazioarteko zuzenbidearen oinarritzako printzipioak, hala nola, oinarritzako giza eskubideak, estatuen berdintasun subiranoa edo indarra erabiltzearen ukazioa, errespetatzen ez dituen erregimen bati emandako mailegu guztiak, gorrotagarritzat jo behar direla defendatzen dute.

Diktadura nabarmen baten kasuan, hartzekodunek ezingo omen dute ezjakintasuna argudiatu eta ezin dute zorra ordaintzeko eskatu. Kasu horretan, maileguaren xedea ez da funtsezkoa zorra karakterizatzeko. Izan ere, erregimen kriminal bati laguntza finantzarioa ematea, laguntza hori ospitale edo eskoletarako bada ere, erregimen hori sendotzeko eta haren jarraipena ahalbidetzeko laguntza-iturri bat omen da. Adibidez, eta beti ere komitearen hitzetan, inbertsio erabilgarri batzuetarako funtsak (errepideak, ospitaleak, ...) helburu gorrotagarrietarako erabil daitezke; gerra-ahalegina ordaintzeko esate baterako.

2008an adierazitakoaren arabera, praktikan gorrotagarriak izan beharko lirateke, Nazio Batuen Gutuna, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta horren osagarri diren 1966ko Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko bi itunak eta Nazioarteko zuzenbidearen aginduzko arauak betetzen ez dituzten herrialdeek harturiko kanpo-zorrak.

#### **1.2.2. Zor-gorrotagarriaren jatorria:**

Badira aurrekari historiko batzuk zeintzuk zor-gorrotagarriaren doktrina bermatzen dutenak, bi nabarmenenak ondorengo hauek direla defenda daiteke:

Zor-gorrotagarriaren kontzeptua sortu zuen kasua, XIX. mendean kokatu daiteke. Estatu Batuek Kuba, espainiar dominazio kolonialetik askatu eta Espainiako erresumatik jasotako Kubaren zorra arbuiatu zuten, Kubako herriari bere baimenik gabe eta indarrez inposatua izan zelako (Campana ¿Quién debe a quién? & Observatorio de la Deuda en la Globalización, 2005). 1898an Parisen egindako Hispano-Amerikako Bake Konferentzian, Ipar Amerikako ordezkariak argudiatu zuen Kubak, estatu oinordeko gisa, ez zuela inolako betebeharririk Espainiako erresumak hartutako zorraren zama bere gain hartzeko. Menderapen kolonialetako erregimen batek hartutako zorra ukatzea,



berezko zuzenbideko eskubidea zela eta menderatze-erregimen horrek nahita baztertu izan zituela interesdun nagusiaren, Kubako herriaren, eskubideak. Batzorde ebaluatzaileak arrazoia eman zien AEB-eri, eta zorra gorrotagarritzat jo zen, eta, beraz, baliogabetzat.

Zor-gorrotagarriaren kontzeptua bera baina, Taft epailearen (AEBetako presidente ohia) irizpenarekin formalizatu zen eta nazioarteko zuzenbidearen zati izatera pasa zen, 1930ean Britainia Handiak Kosta Ricaren aurka izandako kasuan (Campaña ¿Quién debe a quién? & Observatorio de la Deuda en la Globalización, 2005). Kasu horretan, Tinoco diktadoreak Ingalaterrako bankuekin hartutako zorra ondorengo gobernuak ordaindu behar ote zuen edo ez eztabaidatzen zen. Gobernu britainiarraren eskaera nazioarteko auzitegi arbitral batek errefusatu zuen, hartzekodun bezala, ezin izan zuelako frogatu bere maileguak modu legitimoan erabili zirenik eta ez gobernu autoritarioaren onura pertsonalerako. Auzia arbitro bakar batek ebatzi zuen, Tinocoren erregimenak adosturiko maileguez ez zutela inolako eraginik eta, beraz, ondorengo gobernuak zor horiek bere gain hartzera behartuta ez zegoela aitortu zuelarik.

Joseph Hanlonen ikerketa baten arabera, herrialde txiroen zorraren %20a, gutxienez, zor gorrotagarria da. Hala, 1. Taulan aurkezten dira autoreak bere ikerketan landutako zor-gorrotagarriaren adibide batzuk.

### 1. Taula: Zor-gorrotagarriaren adibide batzuk

HERRIALDEA	GOBERNUA/DIKTADOREA	ZORRA (Mila-miloi \$)
Indonesia	Suharto	126
Brasil	Gobierno militar	100
Argentina	Gobierno militar	40
Filipinas	Marcos	27
Siria	Assad	21
Sudafrica	<b>Apartheid</b>	19
Pakistan	Gobierno militar	19
Sudan	Nimeiry/Al-Mahdi	17
Tailandia	Gobierno militar	14
Nigeria	Buhari/Abacha	14
Chile	Pinochet	13
Zaire/Congo	Mobuto	13
Argelia	Gobierno militar	5
Iran	Shah	5
Kenia	Moi	4
Etiopia	Mariam	4
Bolivia	Gobierno militar	3
Somalia	Siad Barre	2
Paraguay	Strossner	2
Malawi	Banda	2
El Salvador	Gobierno militar	1
Liberia	Doe	1
Haiti	Duvalier	1

*Iturria : Hanlon Joseph, Dictadores y Deuda, 1998*

#### **1.2.3. Zor-gorrotagarri motak:**

2013an eta 1.1.1 atalen aipaturiko zenbait definizioz baliatuz, Stéphanie Jacquemont-ek “Que retenir du rapport de l’expert de l’ONU sur la dette et les droits humains” lanean, zor-gorrotagarria ondorengo erataria klasifikatzen du:

-Jatorriaren arabera:

- Zorpetzea erraztu zuten mekanismoak
  - Fiskalitate atzerakoi eta iruzur fiskalarekin izandako permisibitateak eragindakoa.
  - Publikoak izan ziren zerbitzuen privatizazioaren, kudeaketa pribatuak sortutako gain-kostuaren eta Estatuaren diru-sarreraren galeraren ondorioz sortutakoa.
- Interes orokorrari mesede egiten ez dioten zorrak sortzen dituzten gobernuaren erabakiak
  - Herritarren kaltetan hartutako zorra, eliteen boterearen onura edo zaintzarako, eta hartzekodunek horren berri izanda. Bereziki, zuzenean edo zeharka, ingurumenean, generoan edo gizarte-desberdintasunean

eragina duten edo, oro har, ingurumen eskubide edota eskubide kultural zein ekonomikoak urratzen dituzten proiektuak edo prozesuak finantzatzeko hartutako zorrak.

- Mehatxu edo presiopean, edo demokratikoki aukeratu gabeko erakundeek inposatuta.
- Erakunde publikoen ustelkeriagatik iruzurrez sortutakoa.
- Gobernu batek hirugarrenei mailegu bat egiteko hartu duen zorra.
- Gobernuek herritarren izenean, haien onespenera gabe, beren gain hartu duten zor pribatua, finantza-erakundeen edo enpresa handien galerak estaltzeko helburuarekin.

-Prozesuaren arabera:

- Gehiegizko klausulak (lukurreria, anatozismoa eta abar) edo legez kanpokoak zituzten zorrak.
- Zorraren kontratazioari buruzko informazioaren zati bat edo informazio osoa alde batera utzi ziren zorrak, edo gaur egun horren informazioa eskuratzeko aukerarik ez daukatenak.
- Gaizki diseinatutako edo programatutako proiektuak diruz laguntzeko hartutakoak, baldin eta herritar gehienentzat onuragarriak izan ez badira.
- Administrazioak kontratuak ematean egindako irregulartasunekin zerikusia duten gastuen ondoriozko zorrak.

-Gauzatzearen arabera:

- Premia-egoera: "Estatu baten existentziarako, haren biziraupen politiko edo ekonomikorako arrisku-egoera".
  - Interesen ordainketa gehiegizkoa den zor oro, premia biziko gastu soziala eragotziz eta biztanleriaren pobretzea eraginez.
  - Zor hori ordaintzeak herritarren subiranotasuna oztopatzen duena.
  - Eskubide ekonomiko eta sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak urratu dituen zor oro
- Zor subiranoaren gaineko espekulazio-presioek sortutako gain-kostuaren ordainketa.

## **2. ZOR-GORROTAGARRIAREN DOKTRINAREN IKUSPEGI JURIDIKO-AKADEMIKOA**

Herrialde askotan zor-gorrotagarriaren doktrina errealitate bat baldin bada ere (ikus 2. Diagrama), badirudi indar gutxi duela nazioarteko komunitate juridikoan. Adibidez, 1980ko hamarkadan, Hegoafrikako apartheid erregimenak zorrak izan zituen banku pribatuekin, eta zati handi bat armada eta polizia finantzatzeko edo gehiengo afrikarra

erreprimitzeko erabilia izan zen. Orain baina, Hegoafrikako herriak bere errepresoreek harturiko zorra ordaindu beharra dauka. Lurmutur Hiriko Artzapezpikuak eta Hegoafrikako Adiskidetze eta Egia Batzordeak, erregimen zaharrak hartutako zor gorrotagarria bertan behera uzteko eskaerak egin badituzte ere, oinordeko gobernua zorra bere gain hartzea onartuko zuen azkenean. Dirudienez, ez betetzeak atzerriko inbertsioa erakartzeko aukerak kaltetuko zituen beldur zelako eta kapitalismoaren arauak zintzo betetzen zituela erakutsi nahi zuelako (Kremer & Jayachandran, 2002).

## **2. Diagrama: Zor-gorrotagarria etiketarako hautagai izan daitezkeen zor batzuk**

<b>Jean-Claude Duvalier (Haiti)</b> Bere ondorengoek 900 milioi dolarrekin ihes egin zuela diote	<b>Hegoafrikako apartheid erregimeneko gobernua</b> Nazioartean gaitzetsita Afrikako gehiengo zigortzeko gastu handiak	<b>Sani Abacha (Nigeria)</b> Esaten denez, 1999an 2.000 milioi dolar zituen Suitzako bankuen kontuetan
<b>Anastasio Somoza (Nikaragua)</b> 100-500 milioi \$ lapurtuta	<b>Mobutu Sese Seko (Kongo/lehengo Zaire)</b> 4.000 milioi dolar pasatu omen zituen kontu pertsonaletara Lagunak aberastu	<b>Franjo Tudjman (Kroazia)</b> Zehaztu gabeko diru-kopuru bat lapurtu Komunikabideak zapaldu eta bere aurkariak erasotu
<b>Ferdinand Marcos (Filipinas)</b> 10.000 milioi \$ metatu zituen	<b>Iturria:</b> Norberak egina  <b>Informazioa:</b> Kremer, M., & Jayachandran, S. (2002)	

Herrialde batzuk agintari ohiek atzerriarekiko pilaturiko funtsak konfiskatzen edo ez itzultzen saiatu badira ere, emaitza oso ezberdinak lortu dira kasuz kasu. Adibidez, Nigeriak Sani Abacharen familiaren dirua berreskuratu zuen, baina Filipinak herrialdeak gutxi lortu zuen Ferdinand Marcosen dirutza aberriratzeko kanpaina luzean. Gainera, bere momentuan xahutu zen dirua betiko galtzen dela argi dago.

Eztabaidagarria da baieztatzea nazioarteko zuzenbideak zor-gorrotagarriaren doktrina onartzen duen ala ez. Beraz, estatu zordun batek zor-gorrotagarrien doktrina zenbateraino erabil dezakeen aztertu nahi bada, nazioarteko zuzenbidean doktrina horrek duen egoera aztertzen hasi beharko da. Horretarako, nazioarteko zuzenbidearen iturriak aztertuko dira, hau da, tratatuak, ohiturazko nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorrak, bai eta erabaki judizialak eta akademikoek doktrina juridikoaren inguruan diotena ere.

## **2.1. Doktrinaren historia juridiko laburra**

Mende aldaketa baino lehen, zabal onartzen zen estatu batek beste baten indar inbaditzaileak uxatzeko hartutako zorrak "gerra zortzat" hartuko zirela eta ez zela itzultze beharrik egongo. Baina Mexikok 1867an gaitzetsitako zorrak, 1898an Kubarekin lotutakoak eta 1919an Aliatuek Poloniari kobratzeari uko egin zioten prusiar kolonizazio zorrak zirela eta, beharrezkoa ikusi zen, arlo honetan, idazleek zuzenbidearen azterketa sofistikatuago bat egitea (King, 2006).

Garai hartako angloamerikar iritzi nagusiak zioenaren aurka, ordaintzeko arau bat bazegoela baieztatzen saiatzean, kanpo-zorraren arloaren barruan, Estatuaren jardunbidean aldaketak sorraraziko zituen estatu-ondorengotzaren berri eman behar zuten zenbait akademikok. Sack-ek doktrina zuzenbidezko printzipiotzat hartu zuela pentsa ezkerro, Feilchenfeld-ek zuhurtzia handiagoz aurkeztu zuela baieztatu daiteke, ekitate eta moraltasun kontsiderazio bat bezala aurkeztu zuelako (ikusi 1.2.1.).

Autore hauen ondoren, Bigarren Mundu Gerraren pasa eta gero, doktrina nazioarteko abokatuak planteatu zuten eta Daniel Patrick O'Connell estatuen ondorengotzari buruz egindako ikerketa nagusian eztabaidatu zen laburki (O'Connell, 1967; hemen aipatua: King, 2006). 1977an eta 1980ko hamarkadaren hasieran, doktrina berriro ere aintzat hartua izan zen tratatuez bestelako arloetako Estatuaren Ondorengotzari buruzko Vienako Konbentzioaren idazketan. Bere egoera argitu gabe geratu zen batzuentzat, nahiz eta beste batzuentzat behin betiko finkatuta geratu. 1980 hamarkadako literaturan noizbehinka landua izan ondoren, Hegoafrikako apartheid gobernua erori ondoren, Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak zenbait zor gorrotagarri bertan behera uztea gomendatu zuenean berpiztu zen doktrina (King 2006). Gizarte zibileko zenbait taldek eta 1990ko hamarkadan zorra arintzeko kanpaina egin zuten zenbait egilek eutsi zioten bultzada horri (Adams, 2004). Milurteko berrian doktrinak interes akademikoa berreskuratu zuen heinean eta Argentina eta Nigeriako testuinguruan zorraren zilegitasunari buruzko eztabaiden artean Bush administrazioko kide batzuek eta aldizkako argitalpen batzuek, doktrina Iraken aplikatzea eskatu zuten 2003an (Gelpern, 2005). Horrela, akademikoen eta ekintzaileen artean zor-gorrotagarriaren gaineko interesa berpiztu ahal izan zen.

## **2.2. Doktrina juridikoa nazioarteko zuzenbidearen iturrien arabera**

Nazioarteko Justizia Gortearen Estatutuaren 38. artikulua, oro har, "Nazioarteko zuzenbidearen iturrien adierazpen osotzat" hartzen da (Brownlie, 2003; hemen aipatuta:

King, 2006). Honako hauek identifikatzen ditu: tratatuak, eskubide gisa onartutako estatu-jardunbidea, nazio zibilizatuek aitortutako zuzenbidearen printzipio orokorrak, eta, subsidiarioki, kalifikazio handiko publizisten erabaki judizialak eta idatziak.

Hasieratik esan behar da estatuak, historikoki, ez dutela adierazi zor-gorrotagarriaren doktrina, izen zehatz hori erabiliz, aplikatzen ari direnik eta ondoren aipatuko diren auzitegi guztiek ere, ez dute gaia zor-gorrotagarria hitza erabiliz jorratu. Aurretik aipatu bezala zor-gorrotagarri kontzeptua, Sackek, ustez aplikaezinak diren maileguak identifikatzeko emandako etiketa bat besterik ez da, irabazirik ezaren, ez-ezagutzaren eta hartzekodunaren konplizitatearen hiru baldintzak betetzen dituztelako. Zorraren gorrotagarritasunaren defendatzaileek zera adierazi nahi izan dute: zuzenbidearen iturriek erakusten dutela ordainketa-araua ez dela zor mota horietan aplikatzen, erabili nahi den terminologia edozein dela ere.

### **A. Estatu oinordekotzaren adibideak**

Ondorengo instantziak zenbait kontuetan identifikatu edo defendatuak izan dira, nazioek zor-gorrotagarriak kitatzeko betebeharra aitortzeari uko egin izanaren estatu praktikaren adibide gisa: Mexikoren gaitzespena Europako hainbat zorri (1867), Kubako uhartean borroka independentista baten errepresioarekin lotutako Espainiako zorrak ez itzultzea (1898), Tsarren zorren gaitzespen sobietarra (1918), Poloniaren kolonizazioarekin lotutako zor prusiarrak ez banatzea (1919), Alemania naziak Austria anexionatu ondoren (1938) austriar zor jakin batzuk bere gain ez hartzea, Aro kolonialeko zorren bariedade bat, hamahiru kolonia amerikarrenak barne, Britainia Handiarekiko independentzia aldarrikatzean, baita Indonesiarekin lotutako zor espezifikagoak ere; Iraultzaren aurreko Txinako zor guztiak, horietako batzuk, geroago, liskarrean gorrotagarri bezala ezaugarritu zirenak (1952), Aljeriako Frantziako administrazioarekin lotutako zorrak (1962), Iranen baieztapenak, armen erosketa finantzatzen zuten erreboluzio aurreko zor batzuk gorrotagarriak zirela, ...

Baieztapen guzti horiek orain arteko literaturan zalantzan jarri badira ere, pentsa daiteke kasu gehienek estatuko jardunbidearen adibide garrantzitsuak izaten jarraitzen dutela.

### **B. Vienako Itunak eta Konbentzioa**

Badira zenbait tratatu, 1.2.1. azpiatalean definitutakoaren arabera, zor-gorrotagarriaren doktrinari erreferentzia egin ahal diotenak. Adibidez, Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 50. Artikuluan<sup>2</sup> isladatzen dena, zeinek estatuko ordezkariak,

---

<sup>2</sup> Estatu batek bere burua itun baten bidez behartzeko duen adostasunaren adierazpena bere ordezkariaren ustelkeriaren bidez lortu bada, eta hori zuzenean edo zeharka beste estatu negoziatzaile batek egin badu,

estatuaren nortasun korporatiboaren agente direla dioen. Artikulu horrek aukera ematen dio estatu bati bere ordezkariaren ustelkeria argudiatzeko, bere burua zorra itzultzeraz behartzen duen adostasuna baliogabetzeko justifikazio gisa.

*"Adostasun eta onura publikoaren ideiak oso garrantzitsuak badira zor publiko bat nazioarteko zuzenbidean legezkoa izan dadin, orduan garrantzitsuak izan daitezke, halaber, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, Nazio Batuen Gutuna eta autodeterminazioari eta estatuen eskubide eta betebeharrak ekonomikoak buruzko hainbat ebazpen"* (King, 2006).

Aipatutako tratatuak doktrinarekin lotuta egon daitezke, eta behar bezala lotuta daude, baina galdera premiazkoena, trataturen bat zuzenean doktrinaren existentziari buruzkoa izan ote zen edo ez da. 1983ko Vienako Konbentzioa, Estatuaren Ondasun, Artxibo eta Zorren arloen inguruko Estatuaren Ondorengotzari buruzkoa, estatuen ondorengotzarekiko zorraren ordainketaren gaia lantzen duen nazioarteko konbentzio bakarra da. Konbentzio horretan, ondorengo eran definitu ziren zor-gorrotagarriak (Wood, 1980; hemen aipatua: Howse, 2007):

- A) Estatu oinordekoaren edo lurralde transferituaren interes nagusien aurkako helburuak lortzeko aurreko estatuak hartutako zor guztiak.
- (B) Aurreko estatuak Nazio Batuen Gutunean jasotako nazioarteko zuzenbidearekin bat ez datozen helburu eta helburuekin hartutako zor guztiak".

Hala ere, azpimarratu behar da Konbentzioa ez dela indarrean sartu eta beraz, oro har, ez dela kodetzeko tresna arrakastatsuzat jotzen. Dena dela, Nazio Batuek idaztea eta onartzea egokia da oraindik ere testuinguru horretan, nolabaiteko garrantzia eta etengabeko egokitasuna duten arau eta printzipioen adierazpena ematen duelako (Williams & Harris, 2001).

Cheng-ek (2007), Konbentziotik zor-gorrotagarriaren doktrina nahita baztertu zela dio. Baina Kingen (2006) arabera, baieztapen hori faltsua da zenbait alderdi garrantzitsutan. Azken honek dioenez, egia da zor gorrotagarriari buruz proposatutako artikulu-proiektua baztertu egin zela, baina frogak askok iradokitzen omen dute doktrina guztiz bateragarria dela Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordearen (NZB) azken txostenarekin eta NZB-k gomendatutako zirriborroa zuzendu egin zela, une hartan baieztapen gisa hartuz, Konbentzioaren arabera zor-gorrotagarriak ezin izango zirela eskagarriak izan.

---

estatu horrek ustelkeria hori alegatu ahal izango du, tratatuak bere burua behartzeko adostasunaren akats gisa.

Arautegi-historia hori behar bezala ulertzeko baina, gomendagarria da, eta agian beharrezkoa, Konbentzioaren idazketaren historiaren hiru faseak aztertzea: (1) Errelatore Bereziaren txostena, (2) NZBk onartutako Konbentzio-proiektua, eta (3) Estatuetakako ordezkarien konferentziak hartutako Konbentzioaren azken testua. Hiru faseak Jeff A. King-en 2006ko *"Odious Debt: The Terms of the Debate"* artikuluan zehatz-mehatz azaltzen dira.

#### **D. Idazki eta erabaki judizialak**

Orain arte doktrinari buruzko idazki juridikoak honela sailka omen litezke: (1) doktrina estatuen ondorengotzaren nazioarteko zuzenbidean dagoela baieztatzen dutenak, (2) gobernuaren ondorengotza kasuetan doktrina existitzen dela baieztatzen dutenak, (3) estatuen ondorengotzaren arautegian existitzen dela aitortzen dutenak, baina aplikazioari dagokionez zenbait muga edo erreserba adierazten dituztenak eta (4) nazioarteko zuzenbideko kontu gisa ukatu dutenak. Beraz, ezin da doktrinaren baliozkotasuna ebaluatu testuak balantzan jarriz, ez delako orekarik edota adostasunik aurkituko. Baina, *"egungo egoerari dagokionez adostasunik ez badago ere, badirudi iritzi akademiko gehienak gobernuen ondorengotza kasuei buruzko ideiaen aurka daudela"* (King, 2006).

Hori guztia kontutan izanik, argi geratzen da doktrina baten existentziari buruzko erabaki judizialak ez direla ez oso argiak ezta osoak ere. King-en (2006) arabera, baieztatu daiteke zor-gorrotagarriari lotutako kasurik ezagunena Tinocoren arbitrajea dela (behatu 1.2.2.). Azpimarratzekoa da kasu honek aberastasun pertsonalarekin lotutako zorrak jorratu zituela, gobernuaren zela aztertzea eta ez estatuaren oinordetza, eta kasu honetan ez zela erabili "zor-gorrotagarria" etiketa. Askoz ere berrikiago, Kenyaren aurkako kasu batean Inbertsioei buruzko Diferentziak Konpontzeko Nazioarteko Zentroko (CIADI) arbitroen panel batek funtzionario publikoen eroskeria nazioarteko politika publikoaren aurkakoa zela eta horrela eskuratutako kontratuak politika horren aurka deuseztagarriak zirela zehaztu zuen (World Bank, 2006). Bi kasu horiek hari komun batetan bat datozela argi dago: Bietan aberastasun pertsonalerako erabilitako zorrak ziren kasuaren erdigune.

Anna Gelpernek (2005) azaltzen du inongo auzitegiak ez duela inoiz aipatu zor gorrotagarriaren doktrina zor subirano edo kanpo-zor bat baliogabetzeko arrazoi gisa. Baina Jeff Kingek (2006) defendatzen duenez, egia da, halaber, inongo auzitegiak ez duela inoiz doktrina behin betiko baztertu. Gainera, estatu subiranoak auzitegi nazionalen aurrera eramatea nahiko fenomeno berria izan da, batez ere, alde aurretik immunitate subirano "absolutuaren" doktrina orokorki onartua izan delako (Gulati et al.,



2007). Hori dela eta Kingentzat (2006), ez da harrigarria auzitegi batek doktrina ez onartzea. Izan ere, Nazioarteko Justizia Gortearen Estatutuaren 38, 1-(d) artikulua argi uzten du erabaki judizialak "bitarteko subsidiarioa" direla zuzenbide-arauak zehazteko. *“Garrantzitsua bada ere, babes judizialik eza ez da gehitu behar abokatuek zuzenbidean aurrekari judizialik ez izateari egozten dioten garrantziari”* (King, 2006: 648).

### **2.3. Doktrina juridikoaren arazo edo ahultasun nagusiak**

#### **1) Gobernu ondorengotzaren kasua**

Gobernuen ondorengotza kasuetan doktrinaren estatusa zein den, gai nagusia da gaur egungo eztabaidetan. Doktrina oro har, aplikatzen bada, estatuen ondorengotza kasuetan bakarrik aplikatzen dela uste baldin bada ere, estatu eta gobernuen arteko bereizketa hori, ahula izan daiteke barne iraultza erradikaletan, hala nola, Errusiako, Txinako edota Irango iraultzetan adibidez. Egia izan baldin badaiteke ere, garrantzitsua da Ernst Feilchenfeldek egindako oharpena ere: *“Estatuen ondorengotza kasuetan zor gorrotagarriaren garrantzia aitortzea, baina gobernuaren ondorengotza kasuetan, berriz, hori ukatzea egintza arbitrarioa dela dirudi”* (Feilchenfeld, 1931; hemen aipatuta: King, 2006).

Gobernuen ondorengotzaren testuinguruan gorrotagarritzat jo diren hainbat kasutatik, aipatzekoak dira XIX. mendeko estatu amerikarretako zorrak (Konfederazioko kide zirenak), Mexikon instantzia bat, Errusiako, Txinako, Tinocoren maileguak eta Kenyak berriki sinatutako kontratua (King, 2006). Eztabaida baina, oraindik nahiko bizirik dago eta kontzeptu ugari ez daude finkaturik. Gainera, badirudi zilegitasun ezaren edo gorrotagarritasunaren kontzeptuak eragina izan zutela Argentina, Irak eta Nigeriako zorraren amortizazioetan (Gelpern, 2005).

Egia da beraz, doktrinaren existentziaren ebidentzia oraindik txikiagoa dela gobernuaren ondorengotza inplikatzeko duten kasuetan. Hala ere, (1) nazioarteko arautegi-esparruan egindako nazioarteko giza eskubideen, erabaki askerako eskubidearen eta nazioarteko zuzenbidean gobernagarritasun demokratikorako eskubidearen aldeko argudioen inguruko funtsezko berrikuspenak, (2) eroskeriaren lege-kontrakotasunari buruzko adostasunak; (3) aurrekari historiko batzuen existentziak, (4) Errenboltso-erregelarekiko derrigortasun juridikoaren ebidentzia ahulak, eta (5) zorraren legitimitate-nozioek paper garrantzitsu bat jokatzen dutela diruditen oraintsuko amortizazioek, zilegi egiten dute gobernu-ondorengotzetan ordaintzeko arauari dagokion zorraren salbuespen gorrotagarri bat, jaiotza edo prestakuntza egoeran dagoela argudiatzea (Lewis, 2007).

Baina noski, argudio horrek garapen handiagoa eskatzen duela argi dago. Halere pentsa daiteke, etorkizunean, garapen horren emaitzak aldaketa sakonak eragin ditzakeela doktrinan.

## 2) Zehaztasun eta aitortza beharra

Zor-gorrotagarrien eztabaidan gutxi aipatzen den arazo bat gorrotagarriak deritzen zorren izaera anitza izan daiteke. Adibidez, gerra-zorrak gorrotagarritzat jotzen dira, baina ez dituzte betetzen Sackek finkaturiko hiru irizpideak (behatu 1.2.1.). Horrek adibidez, eta ulergarria den moduan, Gulati, Buchheit eta Thompsonen gerra-zorrak eta zor-gorrotagarriak ezberdinak direla adieraztea ekarri du (Gulati et al., 2007). Era berean, aipatzekoa da Kuban eta Polonian gertatu zena ezberdina dela Amerikako hegoaldeko estatuetan, Costa Rican eta Kenyan gertatu zenaren aldean. Azken kasu horietan ustelkeri nabarmena edo eroskeria izan ziren arrazoi, eta lehen kasuetan, aldiz, azpiratze koloniala. Gainera azken kasu horietan epaileek ez zituzten zorrak "gorrotagarritzat" jo (King, 2006). Desberdintasun horiek dena konplexuago bilakatzen dute, doktrinan zehaztasun falta nagusia dagoela erakutsiz. Era berean baina, eztabaidari argitasun handia eman diezaiokeen bereizketa baten beharra adierazten dute.

Kingek (2006) argi uzten du gutxienez, ondorengo eran izendatzen dituen hiru motatako zor gorrotagarriak onartzea beharrezkoa dela: (1)gerrako zorrak, (2)menperatze-zorrak eta (3)iruzurrezko zorrak, legez kanpokoak edo ustelkeriakoak.

**-Gerrako zorrak:** Egilearen hitzetan, ez dute zerikusirik herritarren onespenean edo onurarekin, baina historiak zor-gorrotagarritzat jotzen ditu.

**-Menperatze-zorrak:** Hartzekodunaren ezagutzapean, buruzagi despotiko batek estatu bateko biztanleria menderatzen laguntzeko, mugimendu independentista bat zapaltzeko edo lurralde baten kolonizazio ekonomiko edo politikoa bultzatzeko duen asmoa duten zorrak dira. Kategoria honetan nolabaiteko ziurgabetasuna nabari da, "lider despotikoa"-ren kontzeptuan bereziki. Autorearen arabera, beharrezkoa izango da identifikazioan eta aitortzan nazioarteko praktika daukan eta atalase altua ezartzen duten nazioarteko zuzenbidean ezarritako kontzeptuak erabiltzea. Hori horrela, eta zehaztu nahian, genozidioa, nazioarteko krimenak edo giza eskubideen urraketa larri eta sistematikokoak egiten dituzten erregimenen zorrak izan lirateke.

**-Iruzurrezko zorrak, legez kanpokoak edo ustelak:** Zor-gorrotagarriaren kritikoentzat atseginagoak diren zenbait ezaugarri dituzten zorrak aurkitzen omen dira hemen. Zor mota hauek erraz onartutako lege-printzipioekin identifika daitezke, bai eta mailegu-hartzailearen barne-zuzenbidearekin

(bereziki, konstituzio-zuzenbidearekin) eta hautatutako jurisdikzio-zuzenbidearekin ere. Oro har, zalantza gutxi omen dago eroskerian ordaindutako kopuru bat onuragarria izan den ala ez finkatzerakoan. Gainera, aipaturiko Kenyako eta Tinoco-ko kasuak mota honen adibide ere omen dira.

### 3) **Onurak ebaluatzeko konplexutasuna**

Doktrinaren kritika komun bat "onurarik eza" definitzeko zailtasuna da (Jayachandran et al., 2006). Bi kritika nagusienak dira definizioa hori nork eta nola egin beharko litzatekeen. Lehenengoa erantzuteko Sackek auzitegi inpartzial bat proposatzen zuen. Horiek ezartzeko aurrekari eta arau ugari daude (King, 2003). Baina organismo horrek zer estandar erabiliko litzatekeen ez dago argi.

"Onura"-ren ideia, oro har, lausoa da, baina legea termino lausoen interpretazio judizialez josita dago (King, 2006). Kremer, Jayachandran eta Shafterrek (2006), kontrari, argudiatzen dute nazioarteko esleipenek ez dutela hain egoki tratatzen kontzeptu lausoeekin, ohiturazko praktikarik eta arau gidaririk ez dagoelako. Baina Kingek (2006) defendatzen du argudio hori ez dela bereziki sinesgarria, nazioarteko auzitegiak aske baitirelako epaile nazionalak baino askoz iturri nazional gehiagotara jotzeko. Egilearen arabera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, eta beste batzuek, puntu honen irudi zabalak ematen dituzte.

Egia da, "helburu publiko" eta "onura publiko" nozioek badutela beraien esparrua zuzenbide publikoan, eta auzitegiek berrikusten dituztela. Adibidez, Estatu Batuetako zuzenbide publikoak zerga-bilketak helburu publikoetarako izan behar duela onartu zuen, eta hortaz, zerga publikoen diruarekin finantzatzen den edozein zor publikok helburu publikoetarako izan behar duela (Green v. Frazier, 1920; hemen aipatua King, 2006). Kingek (2006) defendatzen du jurisprudentziak zehazten duela asmo publikoa onura publikoaren sinonimoa zela askotan.

Zor-gorrotagarri batean onura publikoa zehaztearen arbitrajearen emaitza ez da oso aldakorra izaten. Oro har, funtzionario publikoen iritzia errespetatzen da eta salbuespenetzko kasuetan bakarrik esku hartzen du (Yianni, & Tinkler, 2006). Baina batek sinets dezake, eta arrazoiz, salbuespenetzko kasuak eta nolabaiteko erantzukizuna zehazteak eragin nahiko hezitzailea eta aldakorra sortarazi dezakeela doktrinaren praktikan.

## **2.4. Doktrina juridikoa: Bai ala ez?**

Beharrezkoa izan da doktrina horren alde aipatzen diren nazioarteko zuzenbidearen iturri nagusiak aztertzea.

Estatuetako praktika kasu batzuk aipatzen badira ere, zenbait adibideren izaera eztabaidagarria ez da erabat azaldua geratu oraindik. Tratatuari dagokionez, onartzen da tratatu asko garrantzitsuak izan daitezkeela doktrinarako. Hala ere, trataturik garrantzitsuena, dirudienez inoiz indarrean jarriko ez dena, Konbentzioaren idazketa-historia baten emaitza da, zor-gorrotagarria estatuen ondorengotza kasuetan aitorgarria dela iradokitzen duena. Zenbait auzitegi nazionalen eta nazioarteko auzitegien erabakiek doktrinaren existentziari buruzko anibalentzia nabarmena erakusten dute, eta iruzkin akademikoa, ikusi den bezala, gai gehienetan banatuta dagoela dirudi. Hori bai, baieztatu daiteke nazioarteko arautegiak zorrak ohoratzeko duen betebeharra ez dela inoiz absolututzat onartu eta sarri, ekitatezko kontsiderazio ugarik mugatu edo kalifikatu dutela, kontsiderazio horietako batzuk, “gorrotagarritasun” kontzeptuarekin bat egin dezaketelarik.

Gainera, Nazioarteko Justizia Gortearen (NJG) Estatutuaren 38. artikulua eta nazioarteko zuzenbidearen ohiturazko arauen eraketari buruzko Gortearen jurisprudentzia kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke ez dela Estatuko praktikaren atalazera iritsi, ezta derrigortasun juridikoaren uste osoa ere (Yianni, & Tinkler, 2006). Ondorioztatzen da beraz, oraingoz Ikuspegi Juridikoaren zor gorrotagarriaren definizioa ez dela, izen horrekin behintzat, nazioarteko zuzenbidearen arau gisa onartua izan. Hori dela eta, etorkizunari begira, doktrinaren defendatzaile eta kritikoen zatik gaitz nahiko premiazkoak geratzen direla esan daiteke.

## **3. ZOR-GORROTAGARRIA GIZARTEAN**

Hartzekodunek ez dute zorrak barkatzeko ohiturarik, are gutxiago opariak egitekorik. Eta, hala ere, prentsak erregulariki hitz egiten du zorra murrizteaz eta deuseztatzeaz. 1998ko Torontoko G7ko goi-bileratik aurrera, zorra egiturazko arazo bat dela onartzen da. Orduan, estatu aberatsenak berregituraketa bat antolatzen saiatzen dira. Millet eta Toussaint-ek (2005) dioten arabera, Iparraldeko herrialdeak, epemugetan atzerapenak pilatzen dituzten eta gero eta maizago hartzekodunengana ordainketak atzeratzea eskatzen jo behar duten herrialdeentzat murrizketa-neurri batzuk proposatzen dituzte.

Aldi berean, eta alderdi multilateralari dagokionez, NDF-k eta Munduko Bankuak uko egin diote zorrak baliogabetzeari. HIPC<sup>3</sup> (Oso Zorpetuta dauden Herrialde Pobreak) ekimena Bretton Woods-eko bi erakunde hauek abian jarri bazuten ere, ez omen ziren hasiera bateko helburuak bete. Toussaint et al.ek (2015) adierazten dute, garapen bidean zeuden herrialde elkartuek zorrak, ordainketa-atzerapen gabe eta finantza-ahalmenik handienez, behin bakarrik kitatzeko ahalegin bat besterik ez zelan izan. Ildo horretan, HIPC ekimenak zehazten zuen zor-atalasea, herrialde batek berregituraketa eskatu gabe aurre egin diezaiokeen gehienezko zor-mailari dagokio. Hau da, zorra bere gehieneko zenbateko jasangarrira itzultzearekin bakarrik konformatu zen. Aldi berean, zorra arintzeko, herritar gehien bizi-baldintzak hondatzen zituen neurri neoliberalak aplikatu beharra zegoen, zeintzuk giza eskubideak urratzen eta herrialde horietako ekonomiak nazioarteko lehiara irekitzean ahultzen zituzten. NDF-k eta Munduko Bankuak ez zuten zorrik kitatu herrialdeak “Amaiera Puntua” lortu arte, eta erreforma estrukturalak ezartzeko borrokan ari ziren bitartean, herrialdeak zorra ordaintzen jarraitzeko presio handiagoaren menpean utzi omen zituzten.

Testuingurua horrela delarik, kanpo-zorra eta horren barneko zor-gorrotagarria, baliogabetzearen aldeko nazioarteko kanpaina jorratuko da atal honetan. Kanpaina edo mobilizazio horiek testuinguru globalean kokatu behar dira, gizateriaren historiako eskaera handienak (24 milioi sinadura bildu ziren 1998 eta 2000 urteen artean) bultzatuta, mundu osoan zehar banatutako mugimendu ezberdinak biltzen dituztelako (Millet & Toussaint, 2005).

Hirugarren Munduan, kanpo-zorra ez ordaintzeko kanpainak, 1982 eta 1990 urteen artean, izaera herrikoi eta masiboa hartu zuen. Izaera horren islada nagusia Latinoamerika izan zen; krisiak gehien kaltetu zuen kontinentea. 1999. urtetik baina, Hegoaldeko mugimenduen indarra nagusiki indartuko da, Perun, Ekuadorren, Brasilen eta Hegoafrikan mobilizazio handiak eman zirelarik. Iparraldean bestalde, zenbait erakunde izan ziren kanpainaren aitzindari, hala nola Parisko Teknikari, Aditu eta Ikertzaileen Nazioarteko Elkarte (AITEC), 1983an gaia jorratu zuena, edo Belgikako CADTM 1990etik aurrera.

Nazioarteko kanpainak bultzada berri bat hartu zuen laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Jubileo 2000 kanpaina abiarazita. 1998ko maiatzean

---

<sup>3</sup> Toussaint, Munevar et al. (2015): PPME ekimena zorraren eta politika neoliberalen arteko harremanaren adibide argia da. Herrialde oso pobre eta zorpetu batzuen zorraren zati bat arintzeko ekimen hori 1996an jarri zuten abian Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak, G7aren baitan bildutako potentzia handiek emandako aginduaren esparruan. Politika horrek sei urteren buruan bete behar zuen bere egitekoa. Hala ere, 2014an oraindik puri-purian zegoen, hamar urte baino gehiagoko atzerapena metatuz.

Birminghamen,, Britainia Handiko Jubileo 2000ren deialdiari erantzunez, G8aren bileraren garaian, 70.000 britainiarren manifestazio batek, herrialde txiroen zorra baliogabetzea eskatu zuen. 1999an Johannesburgen, Hegoaldeko kontinente guztietako (Asia, Afrika, Latinoamerika) erakundeek osatzen duten eta herrialdeka zein kontinenteka koordinatzen den Jubileo Sur sarearen jeraketa eman zen. Beste sare batzuk ere, sortu dira Iparraldeko hainbat herrialdetan. Frantzian adibidez, CADTM Frantzia eta Gosearen Aurkako eta Garapenerako Batzorde katolikoa (CCFD) bezalako sindikatuek eta erakundeek parte hartzen dute "Zorra eta Garapena" kanpainarekin. Espainian berriz, 1999an, Kanpoko Zorraren Abolizioaren aldeko Herritarren Sarea (SCADE) eratu zen. Sare horrek 2000ko martxoaren 12an zorra baliogabetzeko erreferenduma antolatu zuen eta milioi bat boto-emailek baino gehiagok parte hartu zuten bertan.

Bateratze sistematikoaren ahalegina egin dute sare askok. Horrela baina, mugimendua zeharkatzen duten eztabaidak agertzen dira: Zorra baliogabetzeak baldintzarik gabekoa izan behar al du? Jubileo Sur, CADTM eta RCADEk baietz pentsatzen dute, baina iparraldeko herrialdeetako Jubileo 2000 kanpainek (bereziki Britainia Handia eta Alemania) eta Hegoaldeko batzuek (Peru, adibidez) berriz, baldintzapenak defendatzen dituzte. Pairatu diren beste eztabaidagai batzuk hauek izan daitezke: NDFren eta Munduko Bankuaren estrategia berria modu kritikoa babestu behar da edo horren aurka egin behar da? Hirugarren Munduko herrialdeen kanpo-zor publikoa deuseztatu behar da, edo zati batena bakarrik? (Millet & Toussaint, 2005).

### **3.1. Baldintzatua eta baldintzagabekoa**

Kanpo-zorraren eta zor-gorrotagarriaren problematikan eragina duten mobilizazio dinamiken ugaritasuna kontuan hartuta, ez da harritzekoa eztabaida, ñabardura, apustu eta jarduteko modu ugariaren panorama bat aurkitzea. Hala ere, Jubileo 2000ren hasieratik, zorraren problematikaren inguruko adierazpen-aniztasunean dauden bi polo generiko identifika daitezke. Hala, alibiatzaileez eta abolizionistez hitz egin daiteke, batez ere, eskariak zorra osorik edo zati batean kitzazari buruzkoak diren kontuetan. Jakina, bi ikuspegi horiek zorraren arazoa egitearen, esatearen eta pentsatzearen inguruko beste gai batzuetan kontrajarri ere ahal dira, 2. taulan ikus daitekeen bezala.

## 2. Taula: Zorraren baliogetze baldintzatua edo baldintzagabeakoa

	Zor-arintzaileak (baldintzatua)	Zor-ezabatzaileak (baldintzagabeakoa)
<b>Ikuspegi orokorra</b>	Arazo ekonomikoa: zor da, baina arindu egin behar da.	Menderatze arazoa: zorra ordaindu egin da eta ezeztatu egin behar da.
<b>Proposamenak</b>	Erreformistak	Transformatzaileak
<b>Nazioarteko Erakundeak</b>	Hartzekodunen eta zordunen arbitroak	Legitimitaterik gabe
<b>Berehalako neurriak</b>	Ikuspegi humanitarioen arabera berriz negoziatzea (hezkuntzan, garapenean inbertitzea).	Auditoriak egitea. Arrazoi historiko, sozial eta ekonomikoengatik ordainketak gelditzea.
<b>Epe luzea</b>	Zor sostengarriaren alde, mundializazio kapitalistaren esparruan.	Egitura kapitalisten aldaketak. Lankidetzarako eta garapenerako mekanismo alternatiboak bilatzea.
<b>Oinarrizko aliantzak</b>	Komunikabideak, GKEak, erakundeen sektore kritikoenak.	Oinarrizko gizarte-mobilizatorako gaitasuna duten gizarte-sektoreak. Mundializazio kapitalistarekiko kritikoak diren sektoreak.
<b>Lehentasunezko ekintzak</b>	Mediatikoak, presio instituzional zuzena, hezkuntza arautua eta arautu gabea.	Gizarte-sentsibilizazioa, ehun kritikoa babestea eta sortzea, zeharkako presio instituzionala.

**Iturria:** Campaña ¿Quién debe a quién? (2008)

Zor-gorrotagarriaren konplexutasun hau zalantzan jartzeko bi polo aipatzeak ez du esan nahi elementu komunik partekatzen ez dutenik. Adibidez, zorra herrialde pobretuen mendekotasun ekonomikorako mekanismo gisa ulertzea, zorpetzeak dakartzan gaitz sozialen kontzientzia edo erkidegoek eta gizarte zibilak zorraren inguruko proposamenetan duten parte-hartze eskasaren kritika, ... (Campaña ¿Quién debe a quien?, 2008). Gainera, 2005eko ekainean (Resistencias y alternativas a la Zuda, La Habanan) eta 2007ko otsailean (Foro Social Mundial, Nairobin) egindako topaketetan, agerian geratu zen gai garrantzitsuetan jarrerak hurbildu behar zirela. Besteak beste, zor horiek berriro negoziatzeko baldintzei uko egitea, arazoaren dimentsio politikoa azpimarratzea edota legítimoak ez dien zorrak berehala kitatzeko eskatzea.

### 3.2. Mugimendu sozialak eta erreferentziako pertsonaiak

Romanet et al.ek (2005) dioten bezala, indarrean dagoen zuzenbidea nekez uler daiteke kapitalismo internazionalizatu baten testuingurutik kanpo, egungo esparru juridikoaren barruan lege ugarik babestutako sistema kapitalista baten testuingurutik kanpo. Hori dela eta, mugimendu sozialak ezinbesteko ekintzak dira, kanpo-zor baten gorrotagarritasun edo ilegimitatea frogatu ahal izango duten auditoria eta epaiketak eskatzeko.

Argi dago legeek sarritan, hegoaldeko herri pobretuei kalte handia egiten dieten, gobernu zein nazioarteko enpresa handi eta erakundeek jokabideak babesten dituztela. Horregatik, kanpo-zorra indargabetzeko borrokan ari diren Periferiako eta Iparraldeko gizarte-mugimenduen azken erreferentea justizia da (Campaña ¿Quién debe a quién?, 2008).. Justizia soziala legezkotasunetik haratago doa, eta nola ez, maiz legezkotasunarekin gatazkan sar daiteke. Hori argi ikusi zen, adibidez, 2000. urtean egindako kanpo-zorraren deuseztapenaren gaineko Gizarte Kontsultan. Agintariak debekatu arren, galdeketa babesten zuten pertsona eta talde gehienek kalera irtetea erabaki zuten, bidezkoz jotzen zutena aldarrikatzeko asmoekin. Kontsulta desobedientzia zibileko ekintza bihurtu zuen errepresioak, agerian utzi zuen, beste behin ere, legezkotasunaren eta justizia sozialaren arteko gatazka hori.

Betebehar etikoen eta legearen artean gatazka dagoenean, ezinbestekoa da indarrean dagoen legeria edo arautegiaren mugak eta kontraesanak adieraztea. Bereziki legeek ez dutenean herrien subiranotasuna eta justizia soziala bermatzen. Hala, iraganeko, gaur egungo edo etorkizuneko legeen esparruan konponbide juridikoak bilatzen dituzten borroka, ekimen, mugimendu edo pertsona asko identifika daitezke.

Arautegia garbia ez dela eta akademikoak horren inguruan adostasun puntu batera heltzen ez direnez:

gizarte-mugimenduek kementsu gogorarazi behar dute nazioarteko zuzenbidea, eta, bereziki, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Ituna, hartzekodunen eta lukurreroen zuzenbidearen gainetik egon behar direla. Funtsezko testu horiek ezin dira inola ere bateragarriak izan zor immoral eta, askotan, gorrotagarri baten itzulketarekin (Millet & Toussaint, 2005: 222).

#### **-Zor Bidegabeak Indargabetzeko Komitea (CADTM)**

Belgikan 1990eko martxoaren 15ean sortua, Zor Bidegabeak Indargabetzeko Komitea, oro har bere frantsesezko izenagatik, CADTM bezala ezagutzen dena, Europan, Latinoamerikan eta Asian oinarritutako tokiko batzordeen eta kideen nazioarteko sarea da. Beste erakunde eta mugimendu batzuekin koordinatuta jarduten du, ikuspegi beraren alde borrokatuz. Bere lan nagusia, zorraren problematikatik abiatuta, hirugarren munduan eta herrialde garatuetatik baztertutako herrietan oinarritzko giza eskubideen, askatasunen eta premien asetze unibertsala lortzeko alternatiba erradikalak egitea eta lantzea da. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen du kanpo-zorra, gehien-gehienetan zor gorrotagarritzat jotzen duena, deuseztatzea.

Ekimen sarearen jatorria, Frantziako, 1989ko uztailan kokatzen da. Frantziako Iraultzaren berrehungarren urteurrena zela eta, "Casuffa comme ci" kanpaina eman zen, Gilles Perrault idazleak eta Renaud abeslariak emandako bultzadaz abiatua. Kanpaina hori, Hirugarren Munduaren zorra berehala eta baldintzarik gabe baliogabetzea eskatzen



zuen Bastillaren Deiaren idazketarekin amaitu zen. Frantzian berehalako jarraipenik izan ez zuen arren, Belgikan nabaritu zen nolabaiteko oinordetza, pixkanaka sarea handitzen eta osatzen joanez.

Hirugarren Munduko zorra eta egiturazko doikuntza daude nazioarteko sare honen kezken muinean, G8aren, nazioz gaindiko enpresen eta Munduko Banku, NDF eta MME hirukotearen erregimenari amaiera emateko asmoarekin. Lan internazionalistara bideratuta, CADTM plurala da hasieratik. Hori dela eta, militanteak, alderdi sindikalak, parlamentariak, elkartasun batzordeak, GKEak... erakartzen ditu. (Millet & Toussaint, 2005)

CADTM-ek, bere helburu nagusiak ondorengo bost ideien bitartez adierazten ditu bere web-orrian:

- Periferiaren zorraren jatorri eta ondorioen eta zorra deuseztatzeko aukera tekniko eta politikoen azterketa zehatza proposatzea.
- Giza garapena finantzatzeko eta erakundeen arkitektura eta nazioarteko finantzaketa errotik eraldatzeko aukerak prestatzea.
- Oinarrizko eskubideen berme unibertsala lortzeko bideak zehazten laguntzea.
- Estatuko eta nazioarteko gizarte-mugimenduak eta herritarren sareak eraikitzeke lana areagotzea.
- Maila guztietako ordezkari politikoak interpelatzea, oinarrizko giza eskubideak bermatzeko eta CADTMk eta gizarte-mugimenduek proposatutako alternatibak abian jartzera bultzatzeko.

Hori horrela bere ekintza eremuan kokatu daitezkeen ondorengo jarduerak aipatu daitezke:

- Bi urtero Belgikan, 600 eta 1400 parte-hartzaile artean biltzen dituen Nazioarteko topaketak.
- Zor-gorrotagarriari buruzko argitalpenak, adibidez: *On The Odiousness of Greek Debt, Chapter 1: Ecuador's Illegitimate Debt, The case for debt abolition: "We cannot afford not to rebel", The Doctrine of Odious Debt: from Alexander Sack to the CADTM ...*
- Erritmo iraunkorreko sentsibilizazio hitzaldiak.
- Pertsona gehiagorengana iristea ahalbidetzen duen nolabaiteko oihartzuna prentsan.

Hori gutxi balitz, aipatu behar da CADTM ez dela bere aldarrikapen zentralera mugatzen, hau da, herrialde txiroenen kanpo-zor publikoa erabat eta baldintzarik gabe balio gabetzea eta garapen bidean dauden herrialdeei ezarritako egiturazko doikuntza-planak bertan behera utzi behar direla aldarrikatzen. Era berean, egungo finantza-logikaren alternatiba jasangarriak eraikitzeke proposamen ugari egiten ditu.

### **-Kanpo-Zorraren Abolizioaren Aldeko Herritarren Sarea (RCADE)**

Sarea gizarte-mugimendu bat, pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzen duen herritarren korrante bat bezala definitzen dute beraiek. Mugimendu horizontala omen da, hierarkiarik gabea, non oinarriak funtsezko zatia diren. Sarea sare politikoa, demokratikoa, horizontala, plurala, irekia, eta akonfesionala.

Sareak kanpo-zorraren arazoa gainditu nahi duela defendatzen du. Zorra ez omen da sistemaren akatsa, sistemaren produktua baizik. Beraz, zorraren arazoari aurre egiteko, egitura-aldaketa sustatzea behar beharrezkotzat jotzen dute. Zorra ezeztatzen bada,

baina egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak aldatzen ez badira, arazoa berriro sortuko dela aipatzen dute.

1999an sortu zen, kanpo-zorraren abolizioari buruzko herri-kontsulta bat egiteko, gure herrialdean 2000ko martxoaren 12an egin ziren hauteskunde orokorrekin bat etorri. RCADEk Espainiako estatuko ia 500 herritan Gizarte Kontsulta ahalbidetu zuten tokiko sare eta plataformak, zein auzi horretan konpromisoa hartu zuten ehunka gizarterakunde eta beren helburuekin eta jarduerarekin lagundu nahi duten herritar guztiak biltzen ditu.

Herritarren Sarearen III. Topaketan, kanpo-zorra indargabetzeko, demokrazia parte-hartzailea bultzatzeko eta pobrezia eta bazterketaren egiturazko kausak salatzeko lanean jarraitzea adostu zen. Zehazki, Sareak propiotzat hartzen ditu 2000ko iraileko Munduko Bankuaren eta Pragako Nazioarteko Diru Funtzaren mobilizazio alternatiboen deialdiak eta Ertamerika berreraikitze eta eraldatzeko 2000ko urtarrilean, Madrilen eginiko kontsulta taldeak.

Bere helburu nagusiak ondorengo hiru ideiatan laburbildu daitezke:

- Demokrazia parte-hartzailea sustatzea.
- Planeta eta herrialdeak erasotzen dituzten bidegabekeriaren buruzko sentsibilizazioa.
- Herrialde pobretuen kanpo-zorra baliogabetzearen eskaera..

### **Jubileo Sur**

Jubileo Sur kanpaina, mugimendu sozial, erakunde, komunitate, GKE eta talde politikoen sare bat da, Amerikako, Afrikako eta Asiako 40 herrialde baino gehiagotan kideak dituena. Johannesburgon (Hegoafrika) sortu zen, Afrika, Asia eta Latinoamerika eta Karibeko 35 herrialdeetako 119 lider eta ordezkariak parte hartu zuten, Hegoaldeko herrialdeen goi-bileran batean. Nazioarteko sare eta Hegoaldeko gizarte-mugimendu gisa definitu zuten kanpaina.

Hegoaldeko herrialdeetan zorra ezeztatze mugimendu bat eraikitze prozesuan jarduten du. Bereziki legez kontratatzat eta gorrotagarritzat jotzen den kanpo-zorra baldintzarik gabe abolitu dadin, funts publikoak oinarritzko zerbitzuetan erabil daitezkeen, egiturazko doikuntza-programak eta beste politika neoliberal batzuk amaitu daitezkeen, Hegoaldeko herrialdeekiko zor historiko, sozial eta ekologikoa aitortu dadin eta munduko orden ekonomiko bidezkoago eta demokratikoago bat sortu dadin.

Helburu horiekin, beren laguntza ematen diete esparru horretan lan egiten duten mugimenduei, informazio-trukea erraztuz, hezkuntza, prestakuntza- eta ikerketa lanak eginez, Hegoaldeko mugimenduek nazioarteko kanpainetan parte hartzea ziurtatuz, Hegoaldeko kezka eta ikuspuntuetarako gune bat sortuz eta Iparraldeko erakundeekin batera lan kooperatiboa sustatuz.

Beraien misio edo helburu garrantzitsuenak ondorengo ideiatan adierazten dituzte:

- Zorraren sustraiak eta egiturazko kausak aurrez aurre jartzea.
- Justizia ekonomiko, sozial eta ekologikoaren alternatiba iraunkorrak sustatzea.
- Zorrari buruzko diskurtso nagusia desafiatzea eta aldatzea, haren zilegitasunik eza eta gorrotagarritasuna aitortze aldera, zorraren aurka, Hegoaldeko mugimendu kolektibo eta globalari indarra emateko.

- Hegoaldeko herrialdeetako mugimendu sozial eta politikoen barruan eta haien artean, giza-kostuei eta zorraren zilegitasunik ezari eta gorrotagarritasunari buruzko herri-adostasuna sendotu eta sentsibilizatzea.
- Hegoaldeko herrialdeak zor historiko, sozial, ekologiko, klimatiko, kultural, finantzario eta generoetako hartzekodun bezala kokatzen dituen nozioaren eraikuntzan laguntzea.
- Herri mailan eta modu orokorrean koordinatuta, plataformak, agendak eta kanpainak babestea zein garatzea, kanpo-zorraren eta zorraren menperazioaren aurkako borroka bultzatzeko.

Beraien jarduerak aipatze aldera, *Campaña Internacional Sur-Norte sobre Ilegalidad de la Deuda* eta *I Reunión Sur-Norte de Estudio y Estrategias de la Campaña Internacional sobre Deuda Ilegítima* biltzarren deialdiak edota *Declaración de Quito: Ilegalidad de la Deuda* eta *Argentina paga la deuda al Club de Paris. ¡Antes de pagar queremos saber!* sentsibilizazio testuak aipatu daitezke.

### **Éric Toussaint**

Éric Toussaint, CADTM nazioarteko sarearen bozeramailea da. Zientzia Politikoetan doktorea da Liejako Unibertsitatean eta Paris VIII Unibertsitatean. ATTAC Frantziako Kontseilu Zientifikoko kide ere bada, eta Munduko Gizarte Foroaren Nazioarteko Kontseiluaren sorreran parte hartu zuen 2001ean.

Bere hainbat liburu zorraren eta nazioarteko finantza-erakundeen arazoaren erreferentzia bihurtu dira. Adibidez, *50 galdera/50 Erantzun zorrari buruz*, *NDF eta Munduko Bankuari buruz* eta *Sistema Deuda. Historia de las deudas soberanas y su repudio* aipa daitezke. Hainbat liburu eta argitalpenez gain, herritarrek zorra ikuskatzeko bi eskulibururen idazketan parte hartu zuen ere.

Duela urte askotatik, Hegoaldeko herrialdeen zorra baliogabetzeko borroketan eta Iparraldeko herrialdeen legez kanpoko zor publikoetan inplikaturik dago.

Beste hainbat lan eta kolaborazioen artean, 2007an Rafael Correa presidentek ezarri zuen Ekuadorreko zorraren Auditoretza Integraleko Batzordeko kide izan zen eta 2014ko azaroan, gehiengo presidentzialeko parlamentari argentinarrek Argentinako Kongresura gonbidatu zuten, 2014ko irailean habiatutako "Ordainketa subiranoa" izeneko legeak aurreikusitako zorraren ikuskaritza batzordea martxan jarri nahi zutelako.

### **Alejandro Olmos**

Alejandro Olmos Argentinako politikari, kazetari eta historialaria izan zen, eta kanpo-zorraren azterketan autoritate handienetakotzat hartu ohi da. Ideologia nazionalista handikoa, bere bizitza politiko luzean zehar prozesu judizial luze bat burutu zuen Argentinako hainbat gobernu nazioarteko kreditu erakundeekin hartutako zorraren zilegitasunik eza eta gorrotagarritasuna salatuz. Akademikoak zioenaren arabera, herrialdearen kanpo-zorraren zati handi bat argentinarren aurkako iruzurrik handiena omen da, zor hori legez kanpoko eta gorrotagarria baita.

Argentinako kanpo-zorrari dagokionez, 1982ko apirilaren 4an Jose Alfredo Martinez de Hoz eta gobernu zibiko-militarreko beste funtzionario batzuen aurkako kereila aurkeztu zuen kanpo-zorra hartzeagatik. 18 urtez aurrera eramanez auzia, eta Kanpoko Zorraren Foro argentinarra sortu zuen hura sustatzeko.

Bera hil zenean, Alejandro Olmos Gaonak, bere semeak, aitaren lanarekin jarraitu zuen eta 2000. urtean Jorge Ballesteros epaileak zorra legez kanpokoa eta iruzurrezkoa zela ebatzi zuen, legez kanpoko 470 ekintza atzeman zirelarik. Alejandro Olmos Gaonak, Argentinako kanpo-zorraren ikerketetan murgilduta jarraitzen du eta zorraren zati handi bat ez-bidezkoa eta gorrotagarria dela defendatzen duen akademiko ugarietako bat da.

#### **4. ZOR-GORROTAGARRIA HERRIALDEETAN (XXI. mendeko kasu aipagarriak)**

Herrialde batek bere kanpo-zorraren zati bat zor-gorrotagarria dela uste duenean, prozesu luze eta, seguru aski, konplexu baten hasieran aurkitu daiteke. Aurretik aipatu bezala, zorraren parte bat gorrotagarria dela defendatzea eta nazioartean hori berretsia izatea ez da lan batere erraza. Kasu horretarako, Eric Toussaint adituak zenbait elkarrizketatan, herrialde batek zorraren arloan duen egoera hobetzeko modu subirano eta aldebakarrekoan har ditzakeen neurri ezberdinak azaldu ditu. Alejandro Zegadak 2019ko abenduaren 21an El País egunkarian argitaraturiko *¿Cómo son las crisis de la deuda ilegítima y cómo superarlas?* artikuluan ondoren aurkeztuak izango diren, akademikoak proposaturiko bost neurri nagusi azaltzen dira. Neurri horien oinarrian, herrialdearen zorraren zenbateko handi bat gorrotagarria eta legez kanpokoa dela, eta beraz, baliogabea izan behar duela onartzen da.

- **Herritarren partaidetzadun zorraren auditoretza:** Zor subiranoa ikuskatzea da, lehen aipatu den bezala, CADTMk egiten duen gomendio nagusietako bat. Hartu beharreko lehen urratsa dela defendatu ohi da. Toussaint-en arabera ezinbestekoa da auditoria bat egitea, zorraren alderdi ez-legitimoa eta gorrotagarria identifikatzeko. Auditoria horren ondorioz, zorra gaitzestea edota aldebakarreko berregituraketa bat egitea posible dela defendatzen du.
- **Zorraren ordainketa etetea:** Herrialde batek, burujabetzaz eta aldebakarrez, zor-gorrotagarriaren krisiari aurre egiteko hartu dezakeen bigarren neurri bat, zorraren ordainketa etetea da. Joseph Stiglitz eta beste ekonomialari batzuen ikerketetan oinarrituz eta argudio gisa, herrialde batek hartzekodunei zorra etetea lortzen duenean eta zor hori ordaintzeko funtsak politika fiskal hedakorra finantzatzeko birziklatzen dituenean, herrialdearentzako onuragarriak diren emaitza positiboak gerta daitezkeela.
- **NDF-rekin sinatutako akordioen ez-onarpena:** Legelariak eta beste aditu batzuek erakutsitakoa oinarri hartuta, Toussaintek uste du NDFk eta presidentek sinatutako akordio asko, kasu askotan, nazioaren edota herriaren interesen aurkakoa dela. Izan ere, NDF-k, zenbait gobernuri mila milioi

dolarreko maileguak emanez, herrialde hartzaileei zor jasanezina sortzen omen zituzten maileguak eman zitzairen, bere arau propioak urratuz.

- **Agintarien aurrean zorraren hartzekodunen identifikazioa:** CADTMren eta akademikoaren arabera, herrialde kaltetuetako agintariak, tituluen hartzekodunen beste hartzekodun batzuen zerrenda bat ezarri beharko lukete. Horrela, "tituluen edukitzaile txikien ordainketarekin jarraitzea edo aldeko kalte-ordaina proposatzea ahalbidetzen da", dio Toussaintek (Zegada, 2019).
- **Funts-putreen<sup>4</sup> aurkako legeak:** Legeria honek, espekulatzaileek, zorra berrerosteko ordaindu dutena baino gehiago lortzea eragotzi dezakeela defendatzen du. Hori dela eta, lege honen arabera, hartzekodunek zor subiranoaren tituluak berrerosteko ordaindu duten zenbatekoa bakarrik lortu omen ahal izango dute.

Eric Toussaint-ek, zor-gorrotagarrian dagoen akademiko adituenetarikoa denak, bost neurri horiek, beste hainbat gehiago eta mugimendu sozialen garrantzia defendatzen baditu ere, pasaden hamarkadan emandako zenbait kasuetan, neurri, gertaera, jarduteko modu eta emaitza ezberdin asko atzeman daitezke. Azpialt honetan beraz, pasaden hamarkadan garrantzia eta nolabaiteko hedapen mediatikoa izan zituzten, eta zor-gorrotagarria kontzeptuaren alorrean sar daitezkeen, hiru kasu ezberdin aurkeztuko dira. Lehengoko biak, oso ezberdinak badira ere, arrakastatsutzat har daitezke eta azkena berriz, erronkatzat

#### **4.1. IRAKeko zor-gorrotagarria eta hartzekodunen barkamena**

Urte luzeetan, herrialde zordunetako gobernuek ez zuten inolako borrokarik egiten zor-gorrotagarriaren auziari buruz. Era berean botere handiek kontu handiz saihesten zuten zor hori argitara ateratzea. Bat-batean, 2003ko apirilaren 10ean eta 11n, zor-gorrotagarria Bushen Administrazioaren diskurtsoan nabaritzen da. Azken horrek, Frantziari, Alemaniari eta Errusiari, ekialdeko herrialdearen aurkako gerraren aurka agertu ziren herrialdeei, Irakek haiekin duen zorra itzultzearen eskaera bazter dezatela eskatzen die. Nazioarteko prentsa guztiak albistearen berri ematen du. Zor-gorrotagarria erakutsia izan da eta behar bezala aipatu da.

##### **4.1.1. Inbasioa**

Saddam Hussein 1970ean iritsi zen boterera Irakeko presidenteorde gisa, klandestinitatik zuzendu zuen estatu kolpe baten ondorioz (Ramos, 2006). 1979ko

---

<sup>4</sup> Zorra berregituratzeko prozesuan parte hartzeari uko egiten dioten hartzekodunak dira, "Holdout" bezala ere ezagutzen direnak.

uztailaren 16an indarrez eskuratu zuen presidente kargua eta, aldi berean, Errepublikako presidente, Kontseiluko presidente, lehen ministro, alderdiko idazkari nagusi eta Indar Armaturen komandante nagusi izendatua izan zen. Buruzagi absolutu berriak, presidente ohia etxean atxilotzeko agindua emanez, bere boterea sendotu zuen, alderdiaren arauak birformulatu eta, konspirazioa egotzita, indar armatuetako hogeit hamar buruzagi eta beste funtzionario batzuk hiltzera kondenatu zituen. Bere herriaren eta inguruko herrien aurkako krimenik ankerrenetan oinarritutako kontrol-sistema bat ezarri, botereari eutsi omen zion (Adams, 2004).

Mendearren hasieran, Irak, petrolio erreserba frogatuen munduko bigarren postuan aurkitzen zen (%11) Saudi Arabiaren (%12) atzetik. 1980an Iran inbaditu zuen Irakek. Mendebaldeak, eta zehazki, AEB-k, gerra hori babestu zuten, Irango Iraultza desagerrarazten lagun zezakeelakoan. Irak "garaile ahul" bezala irten zen eta Saddamek, Ekialdeko Europak eta Estatu Batuek emandako teknologia eta funtsen laguntzarekin, bere armada berreraiki zuen. 1990eko abuztuan Saddamek Kuwait inbaditu zuenean baina (munduko petrolio erreserben rankingeko hirugarren postua), Estatu Batuek zuzendutako nazioarteko koalizio batek ez zuen okupazioa babestu eta Irakeko buruzagia nazioarteko bakearen aurkako mehatxu gisa aurkezteari ekin zioten (Ramos, 2006).

Saddam Husseinen agintaldia, 2003ko martxoa eta maiatzak artean gertatu zen, Irakeko inbasioarekin amaitu zen. AEB, Erresuma Batua, Australia eta Polonia buru zituen koalizio batek eraman zuen aurrera inbasio hura. George W. Bush AEB presidentea zenaren arabera, inbasioaren arrazoiak, "Irak, suntsipen handiko armez desarmatzea" (sekula aurkitu ez zirenak, ezta hauen existentzia frogatua geratu ere), Saddam Husseinek terrorismoari emandako (ustezko) laguntza bukatzea eta Irakeko herriaren askatasuna lortzea izan ziren.

#### **4.1.2. Zor-gorrotagarriaren zenbatekoa**


Inork ez daki zehatz-mehatz Saddamek zenbateko zorra izan zuen bere herriaren izenean, gobernuaren estatistika ofizialak ez baitziren sistematikoki mantendu (Adams, 2004). 2003ko udaberrian Saddam Husseinen erregimena eraitsi ondoren, Irakeko kanpo zorra 125.000 milioi dolarrekoa zela kalkulatu zen (Weiss, 2006).

Irakeko kanpo-zorraren zenbatekoa, Bushen Administrazioako Energia Sailak 2002an egindako ikerketa baten arabera, 62.000 milioi dollarrera iritsiko litzateke (USDOE, 2002; hemen aipatua: Toussaint, 2003). Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Ordainketen Bankuaren ikerketa bateratu baten arabera berriz, 127.000 milioi

dolarrekoa litzateke, horietatik 47.000 milioi atzerapen interesei zegozkielarik (Chance, 2002; hemen aipatua: Toussaint, 2003). Baina Washingtonetik etorritako bulego pribatu batetik ondorioztatzen denez, Irakeko finantza betebeharren multzoa (zorrak, konponketak eta kontratuak) 383.000 milioi dolarrekoa zen 2003an, horietatik 127.000 milioi zorrak zirelarik (Toussaint, 2003).

Orduan, Éric Toussainten (2003) kalkulu eta azterketen arabera, zor propioen kontzeptuan, esan daiteke Iraken eta hartzekodunen arteko negoziazioa 100.000 milioi dolar inguruko hasierako zenbatekoari dagokiola. Zenbateko hori 2. Grafikoa azaltzen den modura klasifikatzen du akademikoak. Zor horren barruan ez legoke baina, 1991n Iraki ezarritako zigorren esparruan ezarritako 'gerra-zorra' (160.000 milioi dolar inguru), ezta azken hamarkadan Irakek hirugarren estatuekin sinatu dituen eta ordaindu gabe dauden kontratuak finantzatzeagatik pilatutako zorra ere (57.000 milioi dolar inguru), ezta okupazioaren ondoren hartutako zor berriak ere (Ramos, 2006).

## **2. Grafikoa: Irakeko kanpo-zorra Saddamen aroan (milioi dolarretan)**



**Iturria:** Norberak egina

**Datuak:** Eric Toussaint (2003)

Kopuru osoa bi hartzekodun-multzoren artean ia erdibana banatzen zela argi ikusten da, guzti horiek hirugarren herrialdeak direlarik. “Munduko Bankuari, NDF-ri eta hartzekodun pribatuei zor zaien zorrak ez luke aparteko eraginik izango” (Ramos, 2006: 135).

Negoziazioa aztertu aurretik, Parisko Klubeko kideek erreklamaturako zenbatekoak zehatzago aztertzea komeni da, horren baitan baitaude gerra aurreko hilabeteetan sortu

ziren bi bandoetako protagonista nagusiak. G-7ko<sup>5</sup> finantza ministroek 2003ko apirilaren 10ean eta 11n Washingtonen egindako bilera ospetsuan (6), komunikabideek esan zuten Errusia, Frantzia eta Alemania zirela Irakeko zor gorrotagarriaren hartzekodun nagusiak. Errealitatea, 3. Taulan ikus daitekeen bezala, ñabarduratuago dago.

### **3. Taula: Irakeko Parisko Klubaren zorra, 2003an (milioi dolarretan, interes gabe)**

<b>Hartzekodunak (inbasioaren aurkakoak)</b>	<b>Zorraren zenbatekoa</b>	<b>Hartzekodunak (inbasioaren aldekoak)</b>	<b>Zorraren zenbatekoa</b>
Errusia	3.450	Japonia	4.100
Frantzia	3.000	AEB	2.200
Alemania	2.400	Italia	1.720
Kanada	560	Erresuma Batua	930
Brasil	200	Australia	500
Belgika	180	Espainia	320
GUZTIRA	9.970	GUZTIRA	9.770

**Iturria:** Norberak egina ondoko datuetan oinarrituta: Toussaint (2003) eta Weiss (2006)

Taula honi esker,

Irakek herrialde belizistekin duen zor-gorrotagarria handiagoa dela ikus daiteke, 2003ko apirilean Bush Administrazioaren diskurtsoak aditzera eman zuena ulertzea zailago egiten delarik. Gogora dezagun, gainera, negoziazioa hasi aurretik zorraren zenbatekoak nahita puztu eta faltsutu zirela. Adibidez, Parisko Klubak zor zaion zorraren bikoitza aldarrikatzen du: 42.000 milioi dolar eskatzen ditu eta ez 21.000 milioi. Zergatik? Parisko Klubak 1991ko atzerapen-interesak batu dituelako. Zentzugabea, zigorren ondorioz Irakek ez baitzuen petroliorik: NBEk kudeatzen zituen azken horretatik zetozen irabaziak (Eric Toussaint, 2003).

#### **4.1.3. Negoziaketak eta anulazioa**

2002an, inbasioa baino lehen, Estatu Batuek ez zuten, askatasunarekin jardutea eragotziko zien eta, batez ere, petrolioari etekin ekonomikorik handiena ateratzea

<sup>5</sup> Munduan pisu politiko, ekonomiko eta militar handiena duten herrialdeek osatutako foro ekonomikoa da. Zazpi botere ekonomiko aurreratu nagusiak ordezkatzen ditu. Alemania, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batuak osatzen dute.



eragotziko zien kanpo-zor handia zuen herrialde bat administratu nahi. Hori horrela, estatu amerikarreko departamentuak, Irakeko behin-behineko lehen gobernuak zorraren ordainketa-etena adierazi behar zuela erabaki zuen, Irakeko herritarrek kanpo-zorra ez kargatzeko aitzakiarekin. 2003ko apirilean, Estatu Batuetako Altxorraren Idazkariak, horretarako deitutako G-8ko (G-7 + Errusia) bilera batean, Irakeko zorra gorrotagarria zela adierazi zuen (Kitidi & Chatzistefanou, 2011). Hartzekodun nagusiak baina, Errusia eta Frantzia ziren (Ikusi 3. Taula).

Testuingurua horrela izanik, Parisko Klubean bildutako 19 herrialde aberats ados jartzen saiatu ziren. Baina badirudi eztabaidak bereziki konplexuak izan zirela (Millet, 2005).

Lehenik eta behin, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Segurtasun Kontseiluak 1483 ebazpena onartu zuen 2003ko maiatzean. Ebazpen horrek debekatu egiten zion edozein herrialderi 2007ko abenduaren 31ra arte Irakeko petrolio eta gas-industrien diru-sarreren aurkako zor erreklamazioak hastea. Hartzekodunen eskubideen aplikazioa bertan behera uzten zuen ebazpen horrek, kanpo-zorren negoziazioen historiarako mugimendu erradikala suposatu zuen (Weiss, 2006).

Irakeko zorren eta atzerriko erreklamazioen arteko immunizazio ofizial hori are harrigarriagoa izan zen, izan ere, hilabete batzuk lehenago, NDF-k Soberatar Zorra Berregituratzeko Mekanismoa (antzeko xedapen bat jasotzen zuena), proposatu zuenean, herrialde kide batzuek baztertu egin zuten "etenaldi" horren eraginari buruzko kezken inguruan.

Azkenean, eta negoziazio luzeen ondoren, 2004ko azaroaren 20an, Irakeko zorraren % 80 barkatzea suposatzen zuen akordio batera iristea lortu zen. Parisko Klubaren historiako zor-ezeztapenik handiena Weissen (2006) arabera.

Akordioak, barkatzeko prozesua hiru fasetan finkatzen zuen: (1) 2005eko urtarrilean %30a bertan behera geratuko litzateke, (2) urte horretako bigarren seihilekoan, NDF-rekin programa berri bat sinatu ondoren, beste %30 barkatuko litzateke eta (3) gainerako %20a 2008an. Horrela, Irakek Parisko Klubeko herrialdeei, 23 urteko epean, ordaindu behariko diena, 40.000 milioi inguru dolarreko zorra izatetik 8.000 milioi dolarrekoa izatera pasatuko litzateke (Canal Solidario, 2004).

Jarrera horrek AEB eta nazioartea, zordun bat hartzekodunengandik ad-hoc oinarri batekin babesteko prest zeudela frogatu zuen. Beste era batera esanda, nazioarteko ezeztapen-erregimen formalik ezarri gabe (legitimitate gabeko zorrak eta zor-

gorrotagarriak pairatzen dituzten herrialdeentzat baliagarri liratekeena) eta NBE bezalako erakunde politiko baten erabiliz, NDF bezalako finantza-erakunde baten orde. Hau da, Estatu Batuek ahal zuten guztia egin zuten zor-gorrotagarri kontzeptua erabaki horretan erabilia ez izateko, Irakek zuen argudioa beste herrialde askotan erabil zitekeenaren beldur. (Kitidi & Chatzistefanou, 2011).

Hala ere, Intermón Oxfameko Marta Ariasek, zor-gorrotagarriaren doktrina XXI. mendera erakarri zuen erabaki historiko hori, tresna egokituz hartu zuen doktrinaren gaia berriz planteatzeko, adieraziz, keinu positibo hori baliokide izan beharko litzatekeela beste herrialde batzuentzat eta ez soilik nazioarteko komunitatearen interes estrategikoarentzat.

Dena dela, beharrezkoa da galdetzea zergatik kitatu zen lehentasunez Iraken zorra. Petrolioak eta etorkizuneko negozioek eman lezakete erantzuna. Frantzia, Alemania eta Errusia buru dituen Europa 'zaharraren' ardatzak, azkenean, ia bere osotasunean, Estatu Batuek zorra berregituratzeko proposatutako eskaintza onartu zuten. Trukean, herrialde horietako enpresek, Irakeko petrolio berreraikitze eta ustiatzeko kontratuak egin ahal izateko baimena izatearen konpromisoa hartu omen zuen AEB-k (Canal Solidario, 2004).

Gainera, Parisko Klubak berezkoa duen interes-gatazkak, zalantzan jartzen du zorraren konponketa bat antolatzeke klubaren legitimitatea. Parisko Klubean, hartzekodunak berberak dira epaile, epaimahai eta borrero. Hartzekodunek ez dute inolako zerikusirik izan nahi bere herriaren aurkako diktadore baten finantzaketan, isilpean gordetzen dituzte zor-irakiarraren xehetasunak eta ateak itxita negoziatzen jartzen dira zor horiek barkatzeko, berez legezkoak eta legez betearazteko modukoak balira bezala, Irakeko herriak atzera bota ahal izan baino lehen (Adams, 2004).

Idea horretan datza, Irakeko zorraren barkamenak ezkututzen zuen. Izan ere, irakiarrek ez dute sekula jakingo nork finantzatu zuen bere herrialdeko diktadorea eta nola erabili zen dirua. Parisko Klubak zorren arbitraje-prozesu bati aurrea hartu ahal izan zion eta, tamalez, aurrekari hori ez zen ezarri.

## **4.2. EKUADORReko zor-gorrotagarria eta ordainketaren etetea**

Ekuadorren historiako ordainketa-etetzeen kasua bitxienetako bat izan daiteke. Herrialde batek hartzekodunen aurrean dituen betebeharrak betetzen ez baditu, krisi

gogor baten ondoren likideziarik ez izatearen ondorio izan ohi da. Baina 2008ko abenduan, kutxan dirua izan arren, eten egin ziren.

Rafael Correaren gobernuak bonu horien ordainketak eten zituen, Kreditu Publikoaren Auditoretza Integralerako Batzordeak (CAIC), zorpetze publikoa "baliabideak arpilatze eta aldeaniztuneko erakundeek ezarritako politikei men egiteko tresna" zela argudiatuz, kanpo-zorraren zati bat legez kanpokoa eta gorrotagarria zela ebatzi zuelako (Giraldo, 2017).

#### **4.2.1. Zorraren jatorriaren historia laburra**

1971n, AEB-k alde bateko erabakiz ezabatu zuten dolarra urre bihurtzeko aukera. Horrek, nazioarteko finantza-merkatuan dolarren igoera sortarazi zen. Lehengo petrolio shock-arekin, soberako dolar horietako asko petrolio-ekoizleak ziren herrialdeentzat izan ziren, eta Iparraldeko bankuetan utzi zituzten.

1.1.2 atalean azaltzen den bezala, banku horiek kapital horietarako helmuga bat aurkitu beharra zaukaten eta 70eko hamarkadan, Latinoamerikako herrialdeetako diktaduren eta nazioarteko erakunde multilateralen konplizitatearekin, herrialde horiek zorpetzera bultzatu zituzten. Ekuadorren ez zen desberdina izan. Herrialdeko petrolio aberastasunak gainera, mailegu, esportazio eta inbertsioen bidez irabaziak bilatzen zituzten enpresa transnazional eta bankuak erakarri zituen (Ron, 2008).

1980ko hamarkadaren hasieran, sucrearen (Ekuadorreko moneta) balio-galeren ondoren, sektore pribatuan finantza-krisi handia eman zen. Horri aurre egin nahian, estatuak enpresa nazionalen zorrak bidegabeki omen zituen banka sektorea babestea erabaki zuen (sucretizazioa deritzona). Azken finean, zor pribatua zor publiko bihurtu zen, eta, gainera, zorra sei milioi dolarretan biderkatu zen, 1.650 milioi dolarretik 7.500 milioi dolarrera pasatuz (Ikusi 3. Grafikoa). Lege-erreforma horietako asko nazioarteko finantza-erakundeen eraginpean sartu omen ziren zorraren itzulketa bermatzeko (Bouchat et al., 2007; Frydman, 2013).

90eko hamarkadan, esparru legal eta konstituzionalaren malgutasunarekin, Ekuadorren zorpetzeak hazten jarraitu zuen estatuaren bonu berrien jaulkipenarekin, hala nola, Brady bonuekin<sup>6</sup> esaterako. 1993an, Estatuak kanpo-zor publikoaren saldoaren balio nominal berdineko bonuak jaulki zituen, 1983-1985 bitartean harturiko zorra

---


<sup>6</sup> Brady Planaren barruan jaio ziren bonuak dira. Garabidean dauden herrialdeek atzerriko merkataritza-bankuekin duten zorra berregituratzeko tresna. Horrela, gobernuek epe luzeetan jasotako maileguak lasaiago ordaintzea lortzen dute.

finantzatzeko balio izan zuen kanpo-zorraren finantziazioa lortzeko. 1994an, dekretu berri batek bonu berriak jaulkitzea eta atzerriko bankuekin akordioak sinatzea ahalbidetu zuen (CEIDEX, 2007; hemen aipatua: Bouchat et al., 2007).

1999ko finantza krisiaren ondorioz, erreskate operazio berri bat martxan jarri zen, Brady bonuak Bonos Globalengatik trukatur. Bi urte geroago, erantzukizun eta gardentasun fiskalari buruzko lege berri bat jaulki zen, zeinek zor publikoa petrolioaren baliabideekin itzultzera bermatzen zuen. Horrela, 80ko hamarkadan hartutako zorra, zeinaren zati handi bat espekulazio-xedeetarako jaulki omen zena, iraunarazten da (Bouchat et al., 2007).

Nazioarteko erakundeek erritmoa ezartzen duten lege-esparru desarautu eta malguaren testuinguru horretan, alde batetik, sistemaren kudeaketa txarrak eta disfunczioek (plangintza eta kontrol-organo eraginkorrik ezean, arau nazionalak nazioarteko finantza-erakundearen arauen mende zeudelarik) eta, bestetik, herrialdeari ezarritako itzulketa-baldintza garestiek are gehiago gaitzartu zuten herrialdearen zorraren pisua (Frydman, 2013).

### **3.Grafikoa: Ekuadorreko kanpo-zorra dolarretan (1970-2007)**



Iturria: Comisión para la Auditoría Integral del Crédito Público (2008)

Zorraren zerbitzuaren ordainketa 2004. urtean, petrolioaren sarrera fiskalen % 148 izan zen, eta 2006an, berriz, % 200. Joera horri eutsiz gero, 25 urtean Ekuadorrek petrolio erreserbak agortuko zituen, aberastasun hori bere ekonomia, gizarte eta ingurumen garapenean inbertitu gabe (Fattorelli & Vieira de Ávila, 2007; Bouchat et al., 2007).

Testuinguru horretan, eta 3. Grafikoan ageri den bezala, 1970etik 2006ra bitartean, zorra 80 aldiz hazi zen, 213 milioitik 16,856 mila milioi dolarrera igaroz (Fattorelli & Vieira de Ávila, 2007).

#### **4.2.2. Zorraren ilegimitate eta gorrotagarritasuna frogatzen**

2005. urtean, ogasuneko ministro zen Rafael Correak, petroliotik lortzen ziren sarreren gehiengoa kanpo-zorraren ordainketara bideratzea, ez normala ezta bidezkoa ere ez zela deklaratu zuen. Bere iritziz, sarreren %80a hobekuntza sozialetarako, hots, hezkuntzan, osasunean, enplegu-sorkuntzan, erabili beharra zegoen eta %20a zorraren ordainketan. Munduko Bankuak, baina, herrialdeari funts gehiago mailegatuko ez ziola adierazi zuen, ministroa zenaren ideia defendatzen zuen legeren bat ezartzen bazen Ekuadorren. Adierazpen horrek, Munduko Bankua nazioaren barne-arazoetan sartzen ari zela esan nahi zuen (Kitidi & Chatzistefanou, 2011). Nolabaiteko mehatxu horien aurrean, Rafael Correak bere ministro kargua utzi zuen.

2006 amaieran Ekuadorreko presidente hautatu zuten, oinarritzko lau konpromiso hartzen zituela: (1) batzar konstituziogile baterako erreferendum bat deitzea, (2) zor ez-legitimo bat ordaintzen ez jarraitzea, (3) AEB-kin Merkataritza Libreko Ituna (TLC) ez sinatzea eta (4) Estatu Batuekin Ozeano Bareari buruzko Mantako base militar estatubatuarri buruzko ituna amaitzea.

Munduko Bankuko ordezkaria kanporatu eta NDF-ren ordezkariari Ekuadorko Banku Zentraletik irtetea eskatu ondoren, 2007. urtean historia egingo zuen erabaki bat hartu zen. Uztailaren 9ko 472. Dekretu Exekutiboarekin eta gizarte-erakundeen zein mugimendu sozialen eskaria betetz, Rafael Correa presidenteak Kreditu Publikoaren Auditoretza Integralerako Batzordea (CAIC) eratu zuen, herrialdearen zor publikoa ikuskapen independente baten bidez aztertzeke helburuarekin. Azterketak 1976-2006 aldia hartu zuen kontuan eta zor legitimoak eta ez-legitimoak identifikatzea, hartzekodunen erantzunkidetasuna ezartzea eta edozein zorpetze berri, zuzen eta arduratsu erabiltzeko aurrekariak ezartzea proposatu zen (Endrizzi, 2020).

CAICk hamalau hilabete inguru eman zituen lanean. CONAIEko (Ekuadorko Nazionalitate Indigenen Konfederazioa), Ekuadorko mugimendu feministako, zorraren inguruan kontzientziatutako hainbat gizarte-mugimenduko ordezkariak eta Eric Toussaint bezalako akademikoek osatzen zuten komitea. Horiek, merkataritza zorra, zor multilateral, alde biko zorra, Guayas Ibaiaren Arroaren Garapenerako Batzordeari (CEDEGE) emandako kredituak eta barne-zorra aztertu zituzten azpikomisionen bidez funtzionatu zuten.

### 4.2.3. Rafael Correa zor-gorrotagarria ezabatzen

CAICk aurkezturiko emaitzek herrialdearen kanpo-zorraren kontratazioan lege-kontrakotasun eta ez-legitimitatearen aldeko zantzu kezkarriak erakutsi zituzten. Behin emaitzak jakinda, 2008ko abenduaren 12an, Rafael Correak Ekuadorrek bonuetan zeukan zorraren %70aren ordainketa-etendura agintzea erabaki zuen. Erabaki horrek, auditoretzaren hasieran balioaren %50ean kotizatzen zuten tituluak balioaren %20-30era beheratzea suposatu zuen (Kitidi & Chatzistefanou 2011).

Bost hilabeteko alde bakarreko ordainketa-etenduraren ondoren, 2009ko apirilaren 24ko 14. prentsa-buletinaren bidez, Finantza Ministerioak, bonu horien edukitzaileak enkante batera deitu zituen, bonu horiek dolarrekin eskudirutan trukatzeko. Ekuadorko estatuaren proposamen horrek, balio nominalaren %29,5eko berrerosketa suposatu zuen (Gurvich, 2009; hemen aipatua: Endrizzi, 2020).

Enkantea 2009ko ekainean egin zen, eta, orduko Ekuadorko Gobernuaren adierazpenen arabera, etenaldian jarritako bonuen %91 berrerosi zen, balio nominalaren %35era. Ekuadorko estatuari 800 milioi dolar kostatu zitzaion berrerosketa, 3.000 milioi dolarreko balio nominalaren aurrean, arka publikoentzat 7.000 milioi dolarreko aurrezkoa suposatuz (Kitidi & Chatzistefanou, 2011). Zaiat-en (2009; hemen aipatua: Endrizzi, 2020) arabera baina, 2.000 milioi dolarreko aurrezkoa izan zen, hots, Ekuadorko kanpo-zor osoaren % 25,7.

Dena dela, erabateko garaipena izan zen. Susperraldi ekonomikoa ahalbidetu eta hezkuntzan zein osasunean egindako gastu soziala handitu egin ziren. Beraz Rafael Correak 2007-2010 urteen bitartean buruturiko politika erradikalaren bidezko garaipena da. Ondoren, bai, presidentearen biraketa moderatua etorri zen, orain egungo egoeran amaitu dena. Baina Correak lehen aldiak, benetan, onura asko ekarri dizkie bai Ekuadortarrei eta baita zor-gorrotagarriaren doktrinari ere.

Auditoretza-prozesuak eta ondorengo ordainketa-etenduraren deklarazioak hainbat doktrina juridiko ukitu zituzten: borondatearen autonomia, fede ona, gehiegizko kostua, ezinbesteko kasua, mehatxua, indarra, doloa eta akatsa. Hala ere, guztien gainetik nagusitu zen dotrina, zor gorrotagarriaren doktrina izan zen.

### 4.3. ARGENTINAko zor-gorrotagarria eta nazio zein nazioarteko isiltasuna

Pasa den hamarkadako gertaerak azaldu behar baldin badira ere, Argentinako herrialdeak zor-gorrtagarriarekin duen arazoa 1976an hasi zen, azken diktadura militarren hasieran. Halaber, arazoa oraindik ez da amaitu. Orduz geroztik, bere kanpo-zorra handitzen hasi zen, 9 mila milioi dolarren ingurukoa izatetik, pasaden hamarkada hasieran 160 mila milioi dolarreko zorra baino gehiago igaroz (ikusi 4. Taula).

#### **4. Taula: Argentinaren kanpo-zor osoaren bilakaera gobernuaren arabera eta aldakuntzaren ehunekoa aurrekoarekin alderatuta: 1973-2001**

Urtea	Herrialdeko presidentea eta gobernu mota	Kanpo-zorraren zenbatekoa (mila milioi \$)	Aurreko etaparekin alderatutako zorraren igoera (%)
1976-1983	Diktadura militarra	9.700tik 45.100-ra	• %364
1983-1989	Alfonsín Demokrazia	65.300	• %44
1989-2000	Menem Demokrazia	152.563	• %134
2000-2001	De la Rúa Demokrazia	166.272	• %10,8

Iturria: Rapoport, (2014)

#### **4.3.1. Gain-zorpetzearen nondik-norakoak: "Herentzia astuna"**

##### **A) Kanpo-zorpetzearen hedapena diktaduran eta demokrazian (1976-1989):**

1970eko hamarkadaren hasieran kanpo-zorraren hedapena gertatu zen (Ikusi 1.1.2). Egoera horri esker, Berrantolaketa Nazionalerako Prozesua (1976-1983) delakoaren diktadurak, bere politika ekonomikoa (Latinoamerikan neoliberalismoaren aitzindarizat hartzen dena) inposatzeko beharrezko finantziazioa izan zuen. Estatu-terrorismoan oinarrituta, herriaren errepresio latza, biztanleriaren gehiengoaren bizi-maila baxuagotzea eta desindustrializazio-prozesu sakona eragin zituen. Politika horiek nazioarteko finantza-erakundeen babesa jaso zuten (Rapoport, 2014).

Kanpoko zorpetzea areagotu zuen eragiketetako bat, dolarretan zorrak hartzea eta peso argentinarraren gainbaloratuetan bihurtzea zen, tokiko interes-tasa handiak aprobetxatzeko eta devaluazioaz baliatuz, berriro dolar bihurtu eta atzerrira ateratzeko (Musacchio, 2002). Hori horrela, zorpetzeak mailegutako zerbitzuak kitatzeko etorkizuneko diru-sarreraren premia handiagoa eragiten zuen sistema errotu zen, tokiko moneta mesfidantza handitzen eta kapitalen ihesa bizkortzen zen bitartean.

Diktadurak utzitako kanpo-zorrak, interesak (tasen igoeragatik altuagoak zirenak) kitatzeko beharrezkoak ziren merkataritza eta zerga soberakin handiak lortzea eskatzen zuen. 1976tik 1983ra bitarteko kanpo-zorra berehala biderkatu zen, 45 mila milioi dolarretera iritsiz diktaduraren amaiera aldera (Rapoport, 2014). Zor horren zati handi bat Alejandro Olmosek ez-bidezkoa zela salatu zuten, terrorismoa, ustelkeria eta mugimendu espekulatiboak arrazoitzat erabiliz. Salaketa 2000. urtean izan zen berretsia Ballesteros epailearen epai baten bidez eta erantzuleak zigortu zituen. Hala ere, beraien preskribatuta zeuden jada.

Raul Alfonsin presidentea izendatu zenean, 20.000 milioi dolarreko atzerapenak omen zeuden ordainketetan. Alabaina, administrazio berria zorra nazioarteko finantza-erakundeen aurrean irmotasunez birnegoziatzen saiatu zen eta hura negoziatzeko zordunen klub bat sortzen saiatu, arrakastarik gabe. Birnegoziazioen kudeaketan parte hartu zuten hartzekodun nagusien eta nazioarteko finantza-erakundeen zorrotasunak, halako erronka baten aurrean oreka makroekonomikoak lortzeko ahaleginaren tamaina eta gobernuaren oinarri politiko irmorik ezak, jatorrizko estrategia hura hondatuko zuen (Olmos, 2007)..

### **B) Zorpetze ugarirako fase berri bat (1990-2001):**

Alfonsinen agintaldia aldeztatik aurretik amaitu ondoren, 1976tik indartzen ari zen eredu finkatu zen. Eredu horrekin, Argentinako ekonomiaren hazkundera atzerriko kapitalen sarrerarekin lotu zen eta berriz ere baldintza onak aurkitu ziren nazioarteko finantza-merkatuetan. Honek, Carlos S. Menemen gobernuak zabalduko politika neoliberalentzako bidea irekiko zuen, Washingtoneko adostasunaren erabateko onarpenagatik eta NDF-k eta nazioarteko eta tokiko establishment finantzarioak bultzatutako bere arauengatik ezaugarritu zelarik (Musacchio, 2002).

1992an, Argentina Brady Planean sartuko da. Plan honekin, azken diktadura militarretik zetorren, zorraren berregituraketa bat lortu nahi zen, Estatu Batuetako Altxorraren laguntzarekin eta NDF-ren gidaritzapean. Nazioak interesak puntualtasunez ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, hamarkadaren amaieran gertatutako atzerapen batzuk atzean



utziz. Baliteke berregituratutako zorraren zati handi bat gobernuak erreskatatu ahal izana, baina atzerriko bankuei mesede egitea erabakiz, etorkizuneko diru-sarrerak hipotekatu ziren (Olmos, 2007). Gainera, finantza-merkatuetan jarri ziren zorren birmoldaketak ia ezinezko egin zuen ordutik haien zilegitasunik eza identifikatzea (Rapoport, 2014).

Gainera, kanpoko finantziazioa lortzeko eraldaketa estrukturalen zati bezala, 1991n Argentina CIADI-ra, Munduko Bankuaren agentzietako batera, atxikitu zen, atzerriko inbertsioak erakartzeko, herrialdearen subiranotasun juridikzionala trukean emanaz (Rapoport, 2014). Egia esanda, diktadura militarrek jada hasia zuen antzerako prozesu bat, kanpo-zorra hartzeko atzerriko juridikzioa ahalbidetuz.

2000. urtean, De la Ruaren gobernuarekin, estatua itota zegoen kanpo zor handi baten ondorioz. 2001. urtearen amaieran 160.000 milioi dolarretik gorakoa zen eta aurrekontuaren arabera, gastu publikoaren %21,6-a kanpo-zorraren zerbitzuak kitatzeko erabili behar zen (Musacchio, 2002). Zetorren krisiaren aurrean, Fernando de la Ruaren gobernuak, NDF-rekin batera, blindajea izeneko finantza-ingeniaritza antolatu zuen. Erakunde multilateralak, 40.000 milioi dolarreko mailegu-lerroak emango zituen, berak gomendatutako programa ekonomikoa jarraitzearen truke. Arrakastatsua izan beharrean, operazioak mesfidantza areagotu zuen, neurriek atzeraldia sakondu zuten eta baliabideak kapital-ihesera bideratu ziren (Rapoport, 2014; Olmos, 2007).

Testuinguru horretan, gobernuak zenbait neurri hartu zituen, "Corralito"<sup>7</sup> izenez ezagutuko zenaren muga nagusiak ezarriz. Horren aurrean, NDF-k Argentinarekin hitzartutako 1.264 milioi dolarreko ordainketa ez zuela askatuko iragarri zuen (Rapoport, 2014). Horrek ordainketak bertan behera uzteko bidea erraztuko zuen.

Argentinako historiako krisi ekonomikorik latzenak, krisi politiko eta eztanda sozial itzelarekin batera, Fernando de la Rúa presidentea kargua uztera behartu zuen. Handik egun gutxira, eta Rodriguez Saaren agintaldi laburrean, dolarrarekiko bihurgarritasuna erorita, default edo kanpo-zorraren ordainketen amaiera deklaratu zen.

#### **D) Zorpetzearen azken zikloa eta zorraren trukeak (2003tik gaur egunera):**

2003. urtean, Nestor Kirchner presidentearekin, kanbio-tasa flotatzaile adminisratuaz, kanpoko posizioa hobetu zen pixkanaka eta horrekin batera, esportatu zitezkeen


---

<sup>7</sup> Argentinan "corralito" izena eman zitzaion Fernando de la Ruaren gobernuak 2001eko abenduaren 3an ezarritako epe finkoetako, kontu korranteetako eta aurrezki-kutxetako eskudiru librearen murrizketari, ia urtebetez luzatu zena.

produktuen prezioa igo egin zen, industrializazio eta hazkunde prozesu berri bat ematen zelarik. Aldi berean, hartzekodunekin negoziazio zail bat hasi zen. 2005ean kanpo zorra berregituraketa eman zen, 27.057 milioi dolarretan murriztea lortuz (Musacchio, 2002).

Rapoport-en (2014) arabera, kirchnerismoan (2003-2015) Argentinaren zor nominalak gora egiten jarraitu bazuen ere, ekonomian zuen benetako pisua nabarmen murriztu zen (Ikusi 4. Grafikoa), Kirchnertarrek herrialdearen zorra arindu zutela esanez.

#### **4. Grafikoa: Argentinako kanpo-zorraren bilakaera eta BPGrekin duen harremana (1994-2013)**



Iturria: Rapoport, 2014: 17

Hori Mauricio Macriren etorrerarekin okertu zen. Presidente kargua hartu bezain laster, Macrik funts-putreei ordaintzea erabaki zuen, Argentinak krediturako bidea berriro irekiz. Argentinako zorrak gora egin zuen berriro. Agintaldiaren amaierarako, 320.000 milioi dolar gainditzen zituen. BPGarekin alderatuta berriz, % 90etik gora zegoen 2019an, gobernu makristaren azken urtean.

Lucitaren (2020) arabera, zor tituluak atzerriko monetan jaulkitzea izan zen Macriren gobernuak NDF-ren laguntza eskatu behar izatea eragin zuena. Ekonomia ministerioak jakitera eman duenez, finantza erakundeak mailegatu zizkion bost dolarretatik lau zor publikoa kitatzeko erabili ziren.

Emaitzak agerian daude. 2020. urtearen hasieran, Estatu Nazionalaren Zor Publikoa 324.000 milioi dolarrekoa zen. Kopuru horretatik 100.000 milioi inguru murriztu omen daitezke, Macri administrazioak epe motzean eta denbora errekorrean hartutako zorra baita (Lucita, 2020). Baina gainerakoa “herentzia-zorra” da. Behin eta berriz baldintza zalantzarri eta eztabaidagarrietan berregituratu dena eta 1976ko diktadura genozidak hartutako zor hartan du jatorria duena.

#### **4.3.2. Zorraren zilegitasuna**

Kanpo-zorraren zati bat legez kontrakoa eta beraz gorrotagarria dela pentsatzera eramaten duten arrazoi eta ideia hori defendatzen duten pertsona asko daude. Hasteko, zorraren jatorria diktaduran izan zen, herrialdea bizitza osorako zorpetu zuen gobernu errepresioegile batean. Bigarrenik eta hargatik, argi dago zor hori ezin dela Argentinako herriarentzat onuragarria izan zenik esan. Hirugarrenik, zor hori Alfonsinen gobernuak inolako ikerketarik gabe onartua izan zen. Laugarrenik, ondorengo gobernuak berriro negoziatu zuten, zilegia balitz bezala. Eta argudioak gehitzen jarrai daiteke. Adibidez, zorra bidegabea, iruzurrezkoa eta ordainezina zela, Nazioko epaile batek ere zihurtatu zuela jada 2000. urtean

Badira zenbait giza erakunde, hala nola, Hegoaldeko Libreak edota CTA (Argentinako Langileen Zentrala), soilik diktaduraren zorra legez kanpokoa dela diotenak. Ordaindu beharreko zor erreal eta legitimo bat dagoela ziurtzat emanez. Diotenez, gaur egungo zorraren erdia ez-legitimoa litzateke, eta beraz, ikertu beharrekoa, eta bestea legitimoa. CADTMren arabera, ikuspuntu hori okerra da. Horrek herriaren zerbitzura zorpetze bat egon zela esaten dutenei arrazoa ematea suposatzen duelako, horrela izan ez zenean.

NDF-k Argentinako krisian duen erantzukizuna, kanpo-zorraren arazoaren inguruko beste eztabaida ardatzetako bat da. Urteetan zehar, erakundeak bat egin zuen herrialdeak ezarritako politikekin, bere ekonomia erakundeko teknikarien etengabeko auditoriaren pean egon zelarik (Mussa, 2002; hemen aipatua: Olmos, 2007). Egoera horrek bitartekari neutral bat izateko beharrari buruzko eztabaida erakartzen du. Izan ere, negoziatioetako ohiko solaskidea, NDF, hartzekodun nagusia ere baitzen.

Horregatik guztiagatik, zaila da baieztatzea, Argentinaren kanpo-zor guztia benetan bidezkoa eta gorrotagarria ez denik. Ezinbestekoa da alde zuzenetatik, hainbat mugimendu sozial eta akademikoek eskatzen duten bezala, herritarren parte-hartze aktiboa duen auditoria publiko baten bidez tituludunak eta beraiei buruzko informazio osoa, titulu bakoitzaren erosketa/salmenta sekuentzien data eta prezioa eta bitartekaritza-agentek

identifikatzea. Auditoretza publikoa ezinbestekoa da hortaz, kontratatutako zorraren erabilera legitimoa edo gorrotagarria izan zen zehazteko.

Nahiz eta gizarte-mugimendu zein akademikoen eskakizunak eta aurkeztutako ebidentziak nahiko arrazoi izan, gaur egun oraindik, ez dago kanpo-zorraren inongo auditoriarik hasi, ezta zorra gorrotagarritzat jo duen agintari eskudunik. Baina esperantza ez da galdu behar.

## 5. ONDORIOAK

Azterketarekin amaituta, argi eta garbi esan daiteke, zor-gorrotagarria gaur egun, berriro mahai gainera ekarri beharreko aztergai bat dela. Gaurkotasun handiko gai bat baldin bada ere, bere doktrinan kapitulu asko idaztearen beharra azalarazten du.

Zor-gorrotagarria, kontzeptua, 1927an Alexander Sack irakasleak idatzitakoarekin jaiotzen da eta gaur egun teoria da nazioarteko zuzenbidearen arloan. Doktrina teorikoaren arabera, herritarren interesen kontra hartu edo erabili den kanpo-zorra ez dago ordaindu beharrik. 30eko hamarkadatik gaur egunera, pertsona eta talde ezberdinek jorratu duten kontzeptua da, bakoitzak bere ikuspuntu eta ukitu ezberdinak gehitu dizkiolarik. Kontzeptuaren sorrerarako oinarri diren gertaerak baina, askoz lehenagokoak dira eta zor-gorrotagarriaren jatorria XIX. mendean kokatu behar izatea pentsarazten dute.

Geroztik, XX. mendean zehar, kontzeptuak biltzen dituen zenbait ezaugarri bete dituzten kasu asko eman dira. Hala eta guztiz ere, sekula ez da zor-gorrotagarria esplizituki erabili kasu horietan ezta inongo auzitegitan eta legelari akademiko zein ikertzaileak ez dira oraindik adostasun batetara iritsi. Hori, arautegian eta legedian doktrinak nabari dituen hutsuneengatik izan da. Doktrina juridiko baten existentziaren aldeko adibide eta erabaki judizial batzuk aurkitzen baldin badira ere, ez dira teoria derrigortasun juridiko batera eramateko bezain sendoak izan.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du gizartea alde batera uzterik lortu. Gizarte zibilak doktrinaren arloan aurrerapausoak eskatzen ditu eta zor-gorrotagarriaren gaineko erreklamazioak ez dira gutxi. Komunikabideetan asko agertzen ez badira ere, pasa den hamarkadatik ona, zor-gorrotagarriaren onarpenaren inguruko lanetan mugitzen diren erakunde eta akademikoen kopuruak gora egin du. Mugimendu eta ekimen sozialak, akademikoak, beraiek izan dira teoriak praktikara iristea lortu izanaren arrazoi nagusietako bat, praktikako kasu askotan ezinbesteko paperak jokatu dituztelarik.

Hori horrela, ikusi da zor-gorrotagarria ez dela antzinako gai bat. XXI. mendean eman diren kasuek, kontzeptua, hau da, teoria, praktikan aplikagarria edota aplikatu beharrezkoa dela erakusten dute. Ideia berdin batetik abiatuta, prozesu eta metodo zeharo ezberdinez baliatuz, antzerako emaitzak lortu direla erakutsi da. Baina zor-gorrotagarriaren gauzatzea ematerako orduan, herrialdearen burujabetza zein asmoa eta nazioarteko potentzien interesa, alderdi garrantzitsuak izango direla dirudi.

Aztertutako herrialdeetako kasuan esaterako, Ekuadorrek Irakek baino prozesu konplexuago bat izan zuela argi dago. Baliteke gainera, estatuak burujabetza eta kanpo-zorpetze mota hori izan ez balu, zor-gorrotagarria saihesterik lortu ez izana. Iraken kasuan berriz, herrialdeak, berak, ezer gutxi egin zuen zor-gorrotagarria saihesteko. Momentuan herrialdearen kontrola zeukan potentzia izan zen, gorrotagarritasun hori frogatu eta ordainketa ez burutzea eskuratu zuena.

Kanpo-zorraren zati bat gorrotagarria izateak, zor hori ordaintzeko derrigortasunarekin amaitu ahal izango luke. Horrela, errazago edo modu eraginkorragoan egingo litzateke aurre 2020ko pandemiari. Argentinak eta antzerako ezaugarriak pairatu dituzten gainontzeko herrialdeek beraz, Hegoaldekoek batez ere, adorez jardun beharko lukete eta kanpo-zorraren ordainketa eten, krisiari aurre egiteko eta beraien zor-gorrotagarria azaleratzeko asmoz. Ikusi da, posible dela eta horretarako moduak badaudela. Prozesua, zaila konplexua eta astuna izango da seguru aski. Legedia hartzekodunen alde dago eta Benjamin Franklinek zioen bezala, zor handiak aberastasunaren pribilejio dira. Hala ere, duina da sinestea, (tebatar gazteak Sofoklesen Antígona tragedian bezala) legeak ezin duela azken hitza eduki legezkoari eta bidezkoari buruz.

## **6. BIBLIOGRAFIA**

- Adams, P. (2004). Iraq's odious debts. Cato Institute.
- Alvarez, O (2011). “Más deuda es un problema y tiene consecuencias”. El Blog Salmón [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.elblogsalmon.com/mercados-financieros/mas-deuda-es-un-problema-y-tiene-consecuencias#>. [Kontsulta eguna: 2020/07/18].
- Azcona, J. A. (2002). La deuda externa del mundo en desarrollo (Vol. 3). Ediciones AKAL.
- Beemelmans, H. (1997). State Succession in International Law: Remarks on Recent Theory and State Praxis. BU Int'l LJ, 15, 71.
- Bouchat, B., de Romanet, V., Jacquemont, S., Lamarque, C., & Toussaint, É. (2007). LA DEUDA ILEGÍTIMA DE ECUADOR Por una auditoría integral de la deuda.

- CADTM. Deuda Odiosa, eskuragarri hemen: <https://www.cadtm.org/Deuda-odiosa,1373> [Kontsulta eguna: 2020/07/25].
- Campaña ¿Quién debe a quién? & Observatorio de la Deuda en la Globalización (2005). Dossier sobre deuda externa 2005. Bartzelona: Boletín en Línea del ODG
- Campaña ¿Quién debe a quién? por la abolición de la deuda externa y la restitución de la deuda ecológica (2008). El tribunal popular sobre la deuda externa en el estado español y las luchas por la abolición de la deuda externa [On-line], eskuragarri hemen: [http://omal.info/IMG/pdf/pdf\\_libro\\_tribunal\\_web.pdf](http://omal.info/IMG/pdf/pdf_libro_tribunal_web.pdf) [Kontsulta eguna: 2020/07/28].
- Canal Solidario (2004). ¿Qué hay detrás de la condonación de la deuda de Irak?. CADTM [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.cadtm.org/Que-hay-detras-de-la-condonacion>
- Cheng, T. H. (2007). Renegotiating the odious debt doctrine. *Law & Contemp. Probs.*, 70, 7.
- Comisión de Derecho internacional de las Naciones Unidas. Convención de Viena sobre el derecho de los tratados (1969); 1980 urtarrilaren 27an onartuta zuzenketekin
- Comisión para la Auditoría Integral del Crédito Público. (2008). Informe final de la auditoría integral de la deuda ecuatoriana.
- Comité para la Verdad sobre la Deuda Pública griega. (2015). Definición de deuda ilegítima, ilegal, odiosa e insostenible – CADTM. [On-line], eskuragarri hemen: <http://cadtm.org/Definicion-de-deuda-ilegitima-ilegal-odiosa-e-insostenible> Kontsulta eguna: [2020/07/24]
- Endrizzi, D. (2020). La moratoria de la deuda externa en Ecuador:¿ ideología vs. ideología?. *Cultura Latinoamericana*, 31(1), 232-265.
- Fattorelli & Vieira de Ávila (2007). *Contribución a la Auditoría de la Deuda Ecuatoriana*. CAIC-en biltzarrerako prestatutako artikulua. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.auditoriacidada.org.br/wp-content/uploads/2012/08/CONTRIBUCION.pdf>
- Frydman, M. (2013). La cesación de pagos de la deuda externa en Ecuador. *La revista del CCC [PDF]*, (18).
- Gelpern, A. (2005). What Iraq and Argentina might learn from each other. *Chi. J. Int'l L.*, 6, 391.
- Giraldo, J. C. P. (2017). El derecho como resistencia: las decisiones político-jurídicas y la deuda en los casos de Argentina (2001) y Ecuador (2007). *Academia & Derecho*, (12).
- Gulati, M., Buchheit, L. C., & Thompson, R. B. (2007). The Dilemma of Odious Debts. *Faculty Scholarship*, 1567.
- Hoeflich, M. H. (1982). Through a glass darkly: reflections upon the history of the international law of public debt in connection with state succession. *U. Ill. L. Rev.*, 39.
- Howse, R. (2007). The concept of odious debt in public international law (No. 185). United Nations Conference on Trade and Development.
- Williams & Harris, (2001). State succession to debts and assets: The modern law and policy. *Harv. Int'l LJ*, 42, 355.

- Inter-Agency Task Force on Finance Statistics. (2014). External Debt Statistics: Guide for Compilers and Users. International Monetary Fund.
- Jaguaribe, H. (1977). La crisis del petróleo y sus alternativas internacionales. *El Trimestre Económico*, 44(175 (3)), 653-664.
- Jayachandran, S., Kremer, M., & Shafter, S. (2006). Applying the odious debt doctrine while preserving legitimate lending. Center for International Development.
- Kauth, Á. R. (2002). Un concepto olvidado: la deuda odiosa. *Revista de Ciencias Sociales (Ve)*, 8(2), 347-359.
- King, J. (2003). Chapter One: The Doctrine of Odious Debt Under International Law: Definition, Evidence and Issues Concerning Application. CISDL Doc.#: COM/RES/ESJ, 19.
- King, J. A. (2006). Odious debt: the terms of the debate. *NCJ Int'l L. & Com. Reg.*, 32, 605.
- Kitidi & Chatzistefanou (2011). Documental Deudocracia. Grecia. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: [https://www.youtube.com/watch?v=pgBG6ZFXeLw&ab\\_channel=LiberascioOrganizaci%C3%B3n](https://www.youtube.com/watch?v=pgBG6ZFXeLw&ab_channel=LiberascioOrganizaci%C3%B3n) (Kontsulta eguna: 2020/04/11)
- Kremer, M., & Jayachandran, S. (2002). La deuda odiosa: muchos países en desarrollo cargan con las deudas incurridas por gobernantes que se endeudaron sin el consentimiento del pueblo y usaron los fondos para reprimirlo, o en beneficio personal... *Finanzas y desarrollo: publicación trimestral del Fondo Monetario Internacional y del Banco Mundial*, 39(2), 36-39.
- Lewis, B. N. (2007). Restructuring the Odious Debt Exception. *BU Int'l LJ*, 25, 297.
- Lucita, E. (2020). “Deuda argentina, el pasado que no pasa. ¿Qué futuro?”. *Rebellion* [On-line], eskuragarri hemen: <https://rebellion.org/deuda-argentina-el-pasado-que-no-pasa-que-futuro/> [Kontsulta eguna: 2020/08/06]
- Millet, D & Toussaint, E. (2005). Deuda externa Banco Mundial y FMI: 50 preguntas, 50 respuestas. Editorial Abya Yala.
- Millet, D (2005). La deuda de Irak no existe. CADTM - Comité para la Abolición de las deudas ilegítimas.
- Musacchio, A. (2002). El entendimiento externo de Argentina: algunas regularidades históricas. *Indicadores Económicos FEE*, 30(3), 41-72.
- Olmos, A. (2007). La deuda externa: Colonización, miseria y corrupción. El Cid Editor.
- Pérez de Eulate, C. (2012). El Club de París: una visión de largo plazo. *Boletín económico/Banco de España*, abril 2012, p. 109-120.
- Ramos, L. (2006). Los crímenes de la deuda: deuda legítima (Vol. 3). Icaria Editorial.
- Rapoport, M. (2014). La deuda externa argentina y la soberanía jurídica: sus razones históricas. *Ciclos en la historia, la economía y la sociedad*, (42).
- Romanet, Ruiz et al. (2005) *Le droit international, un instrument de lutte ?*
- Ron, O. R. (2008). La legitimidad de la deuda externa. *Foro Revista de Derecho*, (10), 157.
- Schvarzer, J. (1988). Orígenes poco mencionados de la deuda externa de América Latina. *Caravelle* (1988-), 11-33.

- Toussaint, E (2016). La deuda odiosa según Alexander Sack y según el CADTM. CADTM - Comité para la Abolición de las deudas ilegítimas.
- Toussaint, E. (2003). La deuda odiosa de Irak. *Página abierta*, (142), 49-54.
- Toussaint, Munevar, Gottiniaux, Sanabria (2015). “El Banco Mundial y el FMI”, *Las cifras de la deuda 2015*. (60-67).
- Weiss, M. A. (2006). *Iraq's Debt Relief: Procedure and Potential Implications for International Debt Relief*. LIBRARY OF CONGRESS WASHINGTON DC CONGRESSIONAL RESEARCH SERVICE.
- World Bank, (2006). *World Duty Free Co. Ltd v. The Republic of Kenya*, ICSID Case No. ARB/00/7 Award, \$T 140-153.
- Yianni, & Tinkler, (2006). Is there a recognized legal doctrine of odious debts. *NCJ Int'l L. & Com. Reg.*, 32, 749.
- Zegada (2019). “¿Cómo son las crisis de la deuda ilegítima y cómo superarlas?”. *El País* [Online], eskurargarri hemen: [https://elpais.bo/tarija/20191221\\_como-son-las-crisis-de-la-deuda-ilegitima-y-como-superarlas-2.html](https://elpais.bo/tarija/20191221_como-son-las-crisis-de-la-deuda-ilegitima-y-como-superarlas-2.html) [Kontsulta eguna: 2020/09/06]



